

memoriapaper(ak)

NAFARROAKO OROIMEN HISTORIKOARI BURUZKO FONDO DOKUMENTALAREN LANGAIK

5. Zbk

<http://memoria-oroimena.unavarra.es/es/documentos/>

GERTAKARI ERREPRESIBOAK KUANTIFIKATZEA: NAFARROAKO
MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTU FUNTSAREN
AZALPENA ETA ERRONKAK

Egileak: Emilio Majuelo Gil, Fernando Mendiola Gonzalo, Gotzon Garmendia
Amutxastegi, Gemma Piérola Narvarte, Juan Carlos García Funes, Edurne Yaniz Berrio,
Nerea Perez Ibarrola, Edurne Barrenechea Tartas, Iosu Rodríguez Martínez, Rubén.
Sesma Redín Humberto Bustince Sola.

Argitalpen data: 2019 Maiatza



ISSN 2444-5932

Gertakari errepresiboak kuantifikatzea:
Nafarroako Memoria Historikoaren
Dokumentu Funtsaren azalpena eta erronkak

Laburpena:

Dokumentu honetan Nafarroako Unibertsitate Publikoak Nafarroako Parlamentuarekin eta Gobernuarekin sinatu diren itunen ondorioz garaturiko Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren datu-basearen oinarri historiografiko eta metodologikoak aurkezten dira. Errepresio frankista aztertzeko lan egiten duten erakunde, ikerlari eta gizarte eragileentzat kontsulta errazak egiteko bidea ematen duen datu-base bat garatu genuen, bertan historiografiak identifikatutako errepresio praktiken aniztasuna islatzen saiatzeko. Dokumentuaren lehen partean, azken urteotan autonomia erkidego desberdinetan Gerra Zibilaren eta errepresio frankistari buruz argitaratu diren on-line datu-baseei buruzko balantzea azaldu dugu. Jarraian, gure datu-basearen azterketa unitatea aurkezten da, "gertaera errepresiboa", errepresio frankistari buruzko testuinguru historiografikoan eta bortizkeriari buruzko ikerketetan txertaturik. Hirugarren atalean gertaera errepresiboek bere baitan hartzen dituzten kategoria eta azpikategoria errepresiboak deskribatzen dira, eta azkenekoan datu-basearen informazioaren barne antolaketa eta datu-basearen softwarearen hainbat ezaugarri tekniko azaltzen dira.

Hitz gakoak: Espainiako gerra zibila / frankismoa / errepresioa / kategoria errepresiboak / datu-baseak / historia digitala

Resumen

En este documento se presentan los fundamentos historiográficos y metodológicos de la base de datos del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra, desarrollada en la Universidad Pública de Navarra como consecuencia del encargo institucional realizado por el Parlamento y el Gobierno de Navarra. Con este fin, se ha procedido a elaborar una base de datos que permita una ágil consulta por parte de diferentes agentes sociales, institucionales y académicos en torno a la represión franquista, intentando incluir en ella la gran variedad de prácticas represivas que la historiografía ha ido identificando. Primeramente, se presenta un balance sobre la publicación, en los últimos años, de diferentes bases de datos on-line en torno a las víctimas de la guerra civil y la represión franquista en varias comunidades autónomas. A continuación, se presenta la unidad de análisis de nuestra base de datos, "los hechos represivos", insertándola en el contexto historiográfico en torno a la represión franquista y los estudios sobre la violencia. En un tercer apartado pasamos a describir las diferentes categorías y subcategorías represivas en las que se enmarcan los hechos represivos, y finalmente se presentan algunas características técnicas de la organización interna de la información y el software de la base de datos.

Palabras clave: guerra civil española / franquismo / represión / categorías represivas / bases de datos / historia digital

**Gertakari errepresiboak kuantifikatzea:
Nafarroako Memoria Historikoaren
Dokumentu Funtsaren azalpena eta erronkak**

Sarrera

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Parlamentuak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten 2011ko azaroan. Hitzarmenak "Gerra Zibileko eta frankismoko errepresioaren memoria historikoari buruzko dokumentu funts bat" sortzeko konpromisoa jasotzen zuen. Nafarroako hainbat erakunde publikoren eta NUPen arteko lankidetzaren aldi bat ireki zen, gizartearen parte handi baten eskaera asetzen saiatzeko, gero eta gehiago baitziren halakoa eskatzen zutenak. Eskaera horrek erakunde publikoek Nafarroa garaikidean izandako eskubideen urraketan uholdea argitzeko eta ezagutarazteko konpromisoa zekarren berekin; 1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpean hasitako garaia izanen zuten aztergai. Harrezkero, Nafarroako Parlamentuarekin adostutako lankidetzaren horri eutsi zitzaion ondoko urteetan, eta hitzarmen berri batekin eguneratu zen 2016-2019 aldirako. 2016tik gaur egunera arte osatu eta aberastu egin da beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmen eta kontratuekin, hala nola, Nafarroako Gobernuarekin (Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin, eta, 2018tik aurrera, Nafarroako Memoriaren Institutuarekin) eta Iruñeko Udalarekin.

2011n sortu zenetik, Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsak (NMHDF) hainbat ekimenetan lan egin du, hala nola, artxiboen zuzeneko ikerketan, elkarrizketen bilketan, mintegi eta hitzaldien antolaketan, erakundeentzako eta elkarteentzako aholkularitzan eta txostenen idazketan. NMHDFren lanaren giltzarria, ordea, errepresaliatutako pertsonen datu-base bat (DDBB) sortzea izan da, kontsulta publikorako bideratua dena. 2013ko abenduaz geroztik da posible. Datu-base hark bere aitzindari zen datu-basearen eguneraketa

du jatorria, zeina, orduan, unibertsitate baten baitan egindako proiekturik handiena baitzen Espainiako Estatuan: hots, unibertsitate galiziarren arteko *Nomes e Voces* proiektua. Hain zuzen ere, horretan erabilitako softwarearen lagapenak eta haren inguruko aholkularitza teknikoak, biak ala biak Santiago de Compostelako Unibertsitateak bultzatuak, bide eman zuten guk gure lana egin genezan. Hala, Dokumentu Funtza erreformatzen hasi zen gure ikerketaren beharrak aintzat hartuta.

Nomes e Voces proiektuak utzitako softwarea erreformatzeko prozesua 2017an amaitu zen, eskakizun berriei erantzunen zien datu-base berri baten beharra genuela antzeman genuenean. Konplexutasuna gero eta handiagoa zen, bai lanerako erabilitako informazio-bolumenarengatik, baita berrikuntza historiografikoekin bat datorren frankismoaren errepresioaren gaineko ikuspegi poliedrikoagoari moldatu behar ginelako ere, horrek eragin zituen ñabardura eta alderdi desberdinak aintzat hartuta. Inplikazio Instituzionalak, kasu honetan Nafarroako Gobernuarenak, NUPeko GIARA ("adimen artifiziala eta gutxi gorabeherako arrazoibidea") ikerketa taldearekin elkarlanean aritzeko bide eman du. Humberto Bustincek zuzendu du, orain aurkeztuko dugun datu-base berriaren lanketa helburu izanik.

Dokumentu honek, beraz, Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtzaren datu-base berriaren¹ oinarri tekniko eta historiografikoak azaltzea du helburu. Horretarako, lehenik eta behin, errepresio frankistaren biktimen datu-baseak jai zireneko testuingurua zein den aztertuko dugu, bai eta horiek errepresio frankistaren ikerketa historikoan egin dituzten ekarpenak eta eragindako mugak ere. Bigarren atalean, gure azterketa-unitatea aurkeztuko dugu: "Gertakari errepresiboak". Errepresio frankistaren eta indarkeriari buruzko azterlanen testuinguru historiografikoan txertatuko dugu unitatea horretarako. Hirugarrenik,

¹ <http://memoria-oroimena.unavarra.es/>

² <http://pares.mcu.es/victimiasGCFPortal/buscadorAvanzadoFilter.form>.

datu-basea eraikitzeke erabili diren kategoria errepresiboak eta azpikategoriak deskribatuko ditugu. Amaitzeko, NMHDFren datu-base berriaren ezaugarri teknikoen deskribapena egingo dugu.

1) Datu-baseak eta berrikuntza historiografikoa errepresio frankistaren azterketan

Iturriak eskuratzeko problemek lana baldintzatzen dute oraindik. Izan ere, afera hori Franco hil zenetik garatutako memoria-politika publikoei lotuta dago zuzenean, eta ez zaio oraindik irtenbiderik eman (Espinosa, 2015; Aguilar, 2008; Sánchez León eta Izquierdo, 2017, Jimeno Aranguren, 2018). Problema horiek gorabehera, errepresio frankistari buruzko ikerketa historiografikoa etengabeko berrikuntza-prozesu batean dago murgildua azken hamarkadetan. Hori, beste behin ere, diziplinaren beraren izaera historikoari, historiari eta denborarekin areagotzen ari den gaiari buruzko interes sozialari zor zaio; interes hori, aldi berean, memoriaren gaineko mugimendu sozialen garapenarekin dago lotua estatu mailan, eta, maila globalean, joan den mendeko 90eko hamarkadaz geroztik, XX. mendeko iragan traumatikoari buruzko interes berriarekin.

Berrikuntza hori hiru ardatz nagusiren inguruan egituratzen diren hainbat alderditan islatzen ari da. Lehenik eta behin, Del Arco eta Hernández (2016) berriki egindako hausnarketa historiografikoan adierazten duten bezala, gero eta ikerketa gehiago ari dira proposatzen errepresioari buruzko ikerketek ikasketa-eremu klasikoagoak gainditu behar dituztela (exekuzioak eta espetxeratzeak, adibidez). Gauzak horrela, "garaituen gaineko zigorraren modalitate psikologikoak, moralak, ekonomikoak edo sozialak aztertzea" da helburua (Del Arco eta Hernández, 2016: 78). Hori errepresioari buruzko beste sintesi lan batzuetan ere islatzen dela antzeman daiteke: hala nola, Vega (2014) eta Gómez (2018) autoreenetan. Bigarrenik, gero eta obra gehiagotan eskatzen da erregimenaren gizarte-laguntzek dinamika errepresiboetan duten parte-hartzearen ikusgarritasun handiagoa (Gil Andrés, 2009; Aguilar eta Payne, 2017; Mikelarena, 2016). Eta, hirugarrenik, nabarmentzekoa da errepresioari buruzko azterlanen nazioartekotzea, ez soilik dinamika errepresibo zehatzei dagokienena, baita fenomenoaren ulermen

globalari begira egin direnena ere, XX. mendeko errepresio politikoaren eta genozidioen dinamika handien markoan alderaketa baliatuta jorratuz (Preston, 2011; Míguez, 2014). Ardatz horietako bakoitzak eztabaida berriak eragin arren, eta arazo berriak argitara sortzen ari badira ere, horiek dira, zalantzarik gabe, errepresioari buruzko azterlanak berritzeko bideak, eta horiei buruz egin beharko dira ekarpen berriak.

Hala ere, errepresioari buruzko ikerketa historikoa konplexuagoa den heinean, XXI. mendearen hasieratik hainbat ekimen instituzional eta akademiko sortu dira. Gehienak sarean garatu dira, euskarri digitalean. Ekimen horietan, errepresio frankistaren biktimen zerrendak biltzen dira. Gizartearen eskaerei erantzuten zaie horrela, mugimendu memorialisten garapenarekin zerikusia izanik. Izan ere, errepresioaren beraren irismenari eta milaka eta milaka familiatan izan zituen ondorioei buruzko informazio ahalik eta zehatzena eskatzen dute.

Errepresio frankistaren biktimen zerrendak eta datu-baseak sarean argitaratzeko bultzada "iraultza digitalaren" testuinguruan gertatu da, eta horrek goitik behera aldatu ditu historiaren erabilera sozialak eta haren aukerak, bai ikerketara bideratuta, bai irakaskuntzara, baita emaitzen zabalkunde orokorrari begira ere (Pons eta Eiroa, 2018), bereziki errepresio frankistaren esparru espezifikoa (Egido eta Eiroa, 2018). Horrelako argitalpenak ugaritu egin dira hainbat lurralde-mailatan (lokalak, autonomikoak, estatukoak), errepresio mota desberdinen arabera, batez ere hildakoetan zentratuta, eta, batzuetan, biktimen ideologiaren arabera. Horiek guztiek errepresioaren errealitatea ikusgarriago egiteko birtualtasuna izan badute ere, egia da behin baino gehiagotan kontzeptuaren inguruko nahasmenak egon direla dokumentatu nahi zen errepresio motaren definizioa zehazteko garaian; are gehiago, maiz lan horietan alde handiak aurkitu ditugu zorrotasun zientifikotik eta ofizio historiografikotik abiatuta oinarrizkoa den zerbaitetan: informazioa zer iturritatik lortu den aipatzeko premian, gutxieneko metodologia partekatu bat aintzat harturik.

Hemen ez dugu datu-base horien guztien errebaso sakonik eginen, haien irismena eta zuzentasun metodologikoa askotarikoa baita. Dena dela, beharrezkoa ikusten dugu alderaketa-analisi labur bat egitea, NMHDFren datu-basearen ekarpenak hobeki azaldu ahal izateko.

Nahiz eta datu-base gehienak autonomia erkidegoka eginak diren eta horiek diren gehien aurreratu direnak, garrantzitsua da estatu mailako datu-baseak ere aipatzea. Izan ere, hedadura askoz zabalagoa dute, estatukoa, eta hori esparru ezin hobea da eskala berean diseinatutako errebasioa dokumentatzeko. Modu desberdinetan, eta luzaroan, udal- eta probintzia-mugak gainditu zituen errebasioak, eta milaka eta milaka pertsonaren joan-etorri etengabea eragin zuen.

Hala ere, premia hori izan arren, arazo zenbait antzeman dira estatu mailako datu-baseetan. Nahiz eta ukaezina den baseok ekarpenak egin dituztela, arazo horiek lurralde-eremu murrizagoetan baizik ez dira konpontzen ari oraindik. Horri dagokionez, bi ekimen aipatu behar ditugu.

Lehenik eta behin, aipatzeko modukoa da Pares², hots, Gerra Zibileko eta frankismoko errebasialatuei buruzko datu-basea. Kultura eta Kirol Ministerioak bultzatua izan zen, eta hari esker posible da oinarriko datu batzuen edota artxibo moten araberako bilaketa egitea. Erreferentziazko datu-base gisara ezinbestekoa bada ere, kontuan hartu behar da interesa dutenei artxiboetan bildutako dokumentazioa aztertzeke aukera emateko baliabide gisa dagoela pentsatua, eta ez errebasioaren irismenari buruzko datu pertsonalak edo kolektiboak emateko balioko duen tresna modura.

Bestalde, datuek biltzen duten pertsona kopuruari dagokionez, *Innovation and Human Right*sek bultzatutako *La base de datos centralizada de víctimas de la Guerra Civil y el franquismo*³ da anbizio

² <http://pares.mcu.es/victimasGCFPortal/buscadorAvanzadoFilter.form>.

³ <https://scwd.ihr.world/es/>

gehien erakusten duten ekimenetako bat. Besteentzat eredu izan daitekeen datu-base zentralizatu bezala aurkeztu izan da maiz, eta iturriak gehitzea eta erreferentzialtasuna aintzat hartzea dira bere ahalmenetako batzuk. Hala ere, eskaintzen den informazioa mugatua da. Izan ere, pertsona bakoitzari buruzko datuak biltzen dituen dokumentuaren erreferentzia adierazten den arren, ez dira iturri dokumental horiek hustu. Era berean, ez dago modalitate errepresibo desberdinetatik abiatuta iragazkiak erabiliz bilaketa egiteko aukerarik.

Badira, halaber, hainbat datu-base biltzen dituzten atari batzuk, hala nola, ARMHrena⁴. Gainera, *Público, Memoria Pública*⁵, egunkari digitala ere badago. Azken honek Baltasar Garzón epaileak hasitako sumarioan jasotako zerrendak ditu abiapuntu.

Ikus daitekeenez, ekimen horiek garrantzitsuak izan arren, hainbat arazo dituzte bildutako iturrien heterogeneotasunari eta tratamenduari, edo tratamendu ezari dagokienez. Gainera, irizpide zehatzik ez dago errepresiotzat ulertzen denari buruz.

Autonomia erkidegoen eremuari erreparatuz gero, garrantzitsua da adieraztea, elkarre memorialista batzuen ekimen integraletatik haratago, autonomia erkidego gehienetan oraindik ez dagoela informazio zentralizaturik errepresio frankistaren eraginari buruz. Horrek ez du esan nahi ikertu ez denik; izan ere, ia probintzia guztietan daude errepresioaren biktima mortalen inguruko azterlanak (Espinosa, 2010; Vega, 2014). Baina, dena dela, kasu gutxitan egin da lan horiek sarean argitaratzeko urratsa. Defizit hau oso ohikoa da errepresio hilgarriaren kasuan, eta are nabarmenagoa da beste errepresio modalitate batzuei dagokienez.

Gauzak horrela, memoriaren politika publikoen arlo batzuetan dezente aurreratu den erkidego batzuetan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eta

⁴ <http://memoriahistorica.org.es/listados-de-victimas/>

⁵ <https://especiales.publico.es/es/memoria-publica/>

Katalunian batik bat, ez dago errepresioaren ondorioei buruzko datu-baserik eskuragarri. Lehenean, Eusko Jaurlaritzak "desagertutako" 10.000 pertsona baino gehiagoren zerrenda egin zuen, orain gutxi arte sarean kontsulta zitekeena. Une honetan, *Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua* atariak txosten pertsonalizatu⁶ bat eskatzeko aukera ematen du, baina ez dago kanpoko kontsultarik egiteko datu-base eskuragarririk. Bestalde, Kataluniaren kasuan, gerraren eta errepresioaren biktima guztien gainekoa egin da, bi aldeei erreparatuz. *Cost humà de la Guerra Civil*⁷ proiektuan izan da, hain zuzen ere. Gainera, hobien mapa bat ere badago⁸.

Nahiz eta argi dagoen beharrezkoa dela hildakoen zenbaketa hori zabaltzea eta horien artean bereizketak egitea analisi historikoa adierazgarriagoa izan dadin, heriotzaren testuinguru desberdinak (frontea, bonbardaketak, errepresioa erretagoardietako bakoitzean...) gutxi dira errepresioaren inpaktuari buruzko datu-baseak dituzten probintzia eta autonomia erkidegoak, eta, are gutxiago, horien artean, errepresio modalitate desberdinen arteko bereizketaren arabera ere bilaketa publikoa egiteko modua eskaintzen dutenak.

Hala, Valentziako Erkidegoaren kasuan, Alacanteko Unibertsitateak egindako datu-base publikoan honako hauek jasotzen dira, webgunean bertan zehazten denez: "Gerra Zibilean eta diktadura frankistan legez kanpoko errepresioa, justizia penalaren jarduna, biztanleria zibilaren kontrako bereizketarik gabeko bonbardaketak Valentziako erretagoardian, espetxeratzea edota bazterketa politiko eta soziala" pairatu dutenak. Hala ere, ezin da halako bilaketarik egin, informazioaren gaineko kontsulta egiteko garaian pairatutako errepresio mota desberdinen gaineko informazioa eskuragarri badago ere.

⁶ <http://www.gogora.euskadi.eus/solicitud-adn/aa82-adngogo/es/>

⁷ <http://memoria.gencat.cat/ca/que-fem/cost-huma-de-la-guerra-civil/>

⁸ <http://fossesirepressio.cat/es/home>

Era berean, Gaztela-Mantxaren kasuan, *Víctimas de la Dictadura*⁹ proiektuaren webguneak erailketa kasuetatik haratago dauden hainbat alderdi errepresibori buruzko informazioa eskaintzen du, nahiz eta kasu honetan, aurrekoen modura, publikoki egin daitekeen bilaketak ez duen errepresio mota desberdinen arteko bereizketa egiteko iragazkien erabilera eskaintzen bilaketan. Dena dela, bilatzaile adimentsu bat erabil daiteke webgune horretan. Bilatzaile horri esker, posible da intereseko gaien edota espetxeratze lekuen arabeko bilaketak egitea. Erkidego horretan berean, nabarmentzekoa da Mapas de Memoria¹⁰ ekimena ere. Ciudad Realeko Diputazioak abiarazi zuen, nahiz eta herri bakoitzetik ematen duten informazioa biktima zerrenda bat den.

Gaztela eta Leonen, Salamancako probintziaren kasuan, *Asociación Salamanca Memoria y Justicia*¹¹ elkarteak martxan jarritako webguneak aukera ematen du bilaketa-lana modalitate errepresibo batzuen arabera egiteko: heriotza, gerra kontseilua, depurazio laborala, zigor ekonomikoa eta espetxealdia.

Zalantzarik gabe, datu-base proiektuen artetik, hasiera batean Confederación General de Trabajo-k abiarazitako *Todos los nombres*¹², jatorriz Andaluziakoa, izan da irismen handienekoa estatu osoan. Ondoren, beste hainbat elkarte eta erakundek ere parte hartu dute horretan. Mota desberdinetako errepresio frankistaren 100.000 biktima baino gehiago daude bildurik bere erregistroan, eta Extremadurara eta Afrikaren iparraldeko kolonia espainoletara ere zabaldu da proiektua. Eredu argia izan da proiektu mota honetarako aukera akademiko eta sozialak erakusterako garaian. Gainera, mota honetako lehen proiektua izan da esparru autonomikoan. Bilaketa publikoak egiterako orduan errepresio mota desberdinen arabeko bereizketak egiteko aukera ematen duen iragazkirik erabili ezin den arren, horien inguruko

⁹ <http://www.victimasdeladictadura.es/>

¹⁰ <https://www.dipucr.es/index.php/documentos-cultura/mapasmemoria>

¹¹ <http://salamancamemoriayjusticia.org>

¹² <http://www.todoslosnombres.org>

erreferentziak ikus daitezke fitxa pertsonaletan. Horietan, honako ñabardurak bereizten dira: hilketa, gerra-kontseilua, gerrilla-jarduera, esklabo lana, depurazioa, lanetik bidaltzea, irainak, umiliazio publikoak eta espetxeratzeak.

Azkenik, aipamen berezi bat egitea merezi du Galiziako unibertsitate arteko *Nomes e Voces*¹³ proiektuak. Batetik, unibertsitate esparruan aitzindaria delako, eta, bestetik, NUPen Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtzaren (NMHDF) lehen datu-basearen eredu izan delako. Izan ere, proiektu horrek, eskuzabaltasunez datu-basearen softwarea bera eskaini ez ezik, proiektua martxan jartzeko babesak eta laguntza ere eman zigun; egia esan, ezinbestekoa izan zen. Kasu horretan, badago bilaketan errepresio mota desberdinen arabera bereizketa egiten duen iragazkia erabiltzerik. Honakoetan daude sailkatuta: sarraski-eremua, desagertzea, ezezaguna, atxiloketa, exekuzioa, Galiziatik kanpoko exekuzioa, erbesteria, *gulag*-a, heriotza, beste tipologia errepresibo batzuk, paseoa, espetxea, prozesua eta zigorra.

Nafarroari dagokionez, errepresio frankistari buruzko zerrendak eta datu-baseak egiteko eta argitaratzeko tradizio sendoa dagoela esan dezakegu. Izan ere, *Navarra 1936: de la esperanza al terror* argitalpena eredu nagusia izan da errepresioak Nafarroan izandako hilketak neurtu eta biktimak identifikatzeko orduan. Altaffaylla Kultur Taldeak prestatu zuen 1986an, ikerketa kolektibo baten eta Jose Maria Jimeno historialariaren lan aitzindarien emaitza gisa. Zerrenda hori, ordea, baliabide mugatuekin gauzatu zen hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, eta, denboraren poderioz, zuzenketak egin zaizkio ahozko eta artxiboko iturri berriak kontsultatzeko aukerak zabaldu ahala. Hain zuzen ere, liburuaren hurrengo edizioetan bildu dira horietako asko. Gainera, 2008tik aurrera, informazioa zabaltzeko prozesuak berak, Sartagudako Memoriaren Parkeko harrizko paretan

¹³ <http://www.nomesevoces.net>

hildakoen zerrenda jarri baitzen, akats txikiak, okerrak edo falta zirenak antzemateko aukera ere eman du. Inskripzio hori martxan jartzearekin batera, Sartagudako Pueblo de las Viudas elkarteak zerrendak sarean argitaratzeari ekin zion, *Parque de la Memoria*¹⁴ webgunean. Horrela bada, akatsak zuzentzeko eta informazio berria gehitzeko mekanismo bat abiarazi zuen. Ordutik, ekimen hori akatsak zuzentzeko bidea izan da, Altagaylla Kultur Taldea eta Nafarroako Hilobien Mapa¹⁵ bezalaxe. Azken horretan, Nafarroan azken urteotan egindako indusketa lanetan bildutako datuak erregistratu dira. Dena dela, NMHDFren webgunea martxan jarri zenetik, proiektu honek integratu ditu hildakoei buruzko datuak Nafarroako lurraldean hedatutako beste modalitate errepresibo batzuen testuinguru globalean.

Era berean, errepresioaren inguruko heterogeneotasun horri dagokionez, azpimarratu beharra dago Nafarroan bazirela dagoeneko gure datu-basea osatzeko garaian kontuan hartu izan diren sareko datu-baseak. Azken horien datuak gurean aurki daitezke neurri handi batean, edota horretan dihardugu une honetan (horren adibide, esaterako, Nafarroan bortxazko lanen batailoiei buruzko informazio zabala). Hala, honako hauek daude: Ezkabako gotorlekuan espetxeratuen zerrenda, Sierraren eta Alforjaren ikerketatik eta gerora *Txinparta*¹⁶ elkarteak eta Fermín Ezkieta¹⁷ ikerlariak egindako eguneratzeetatik jasotakoa; Iruñeko kartzelako presoek zerrenda, Juanjo Casanova¹⁸ren ikerketatik eta "Emilio Majuelo" Dokumentu Funtsean espetxearen inguruan bilduta dagoen dokumentaziotik abiatuta; Langile Batailoietan eta Langile Soldaduen Zigor-batailoietan izandako presoek zerrendak, Memoriaren

¹⁴ www.parquedelamemoria.org

¹⁵ <http://fosas.navarra.es>

¹⁶ <https://txinpartafuertesancristobal.blogspot.com/p/listado-de-presos-fuerte-san-cristobal.html>

¹⁷ <http://www.losfugadosdeezkaba1938.com/los-olvidados>

¹⁸ <http://carcelpamplona1936.blogspot.com>

Bideak¹⁹ taldeak argitaratuak, eta Altsasuko²⁰ errepresaliatuen zerrendak.

Gauzak horrela, nolabait paradoxikoa den errealitate bat dugu aurrez aurre, nahiz eta itxurazko paradoxa hori aukera bat izan daitekeen errepresio frankistari buruzko azterketek aurrera egiten eta berritzen jarrai dezaten. Alde batetik, errepresioari buruzko historiografiaren parte batek prisma eta aztergai berriak txertatzeko premia azpimarratzen du, eta, bestetik, ahalegin handiak egiten ari dira tresna kuantitatiboak sortzeko, hala nola, biktimen zerrendetarako eta datu-baseetarako. Noiz edo noiz “errepresioaren inguruko ikerketak biktimen zenbaketan zentratu izanak ikuspuntu lauegien eta prototipikoegien sorrera eragin duela” aipatu bada ere (Del Arco eta Hernández, 2016: 78), uste dugu, arrisku hori egon badagoela onartu arren, tresna kuantitatiboan eta horiekin lotutako iturriak biltzen eta lantzen laguntzen ahal digun tresna bat izan daitekeela. Hain zuzen ere, deskribapenean oinarritzen diren eta soilegiak izan daitezkeen ikuspuntuak gainditzeko balio dezake, helburua hori izanik, politika errepresiboaren alderdi desberdinetara hurbilketa pluralagoa egiteko oinarriak jarritz. Horrekin guztiarekin batera, gizartearen eskaera handi eta ulergarriari erantzunen litzaioke.

Horretarako, nolana ere, beharrezkoa izango da gaur egungo errealitateko oztopo batzuk gainditzea. Problema eragin dituzte dokumentazioaren zatiketak eta datuak basean ordenatzeko moduaren gaineko irizpide bateratuen faltak, bai eta frankismoaren errepresioaren aspektu desberdinen inguruko informazioaren hedapena errazteko moduari buruzkoek ere. Testuinguru horretan sortu eta berri da NMHDFren datu-basea. Ondoko atalean azalduko ditugu bere oinarri teoriko eta metodologikoak.

¹⁹ <http://esclavitudbajoelfranquismo.memoriarenbideak.eus/eu/nombres>

²⁰ <https://altsasumemoria.wordpress.com>

2) Gertaera errepresiboak. NMHDFren datu-basearen analisi-unitatea.

Panorama orokorrean dauden datu-baseak behin aztertuta, NMHDFren gaur egungo datu-basea sortzeko aintzat hartu diren oinarrizko irizpideak azalduko ditugu, bai hartzen duen esparru geografikoarekin zerikusia dutenak, Nafarroarekin alegia, baita, bereziki, errepresioaren kontzeptualizazioarekin berarekin eta bere alderdiak sailkatzeko moduarekin lotura dutenak ere.

Zenbait datu-basetan prozesu errepresibo guztien biktimak zenbatu dira, hots, erretagoardia errepublikanoan zein kolpistan izandakoak. Gure kasuan, bigarrenen izandakoetara mugatzen da jasotako eskaera instituzionala. Honakoa da arrazoia: hasieratik gobernu errepublikanoaren aurkako matxinatuen esku egon zen Nafarroako lurralde osoa.

Errepresioari buruzko informazioaren prozesatzeari eta hori datu-base batean antolatzeari dagokionez, argitu beharreko lehen kontua analisirako oinarrizko unitatearen identifikazioa izan da. Kasu honetan, beharrezkoa da analisi ohikoenetatik, pertsonetan oinarritutakoetatik, errepresioaren kuantifikazioan oinarritzen direnetara pasatzea; azken horretarako, "gertaera errepresiboak" identifikatu ditugu oinarrizko unitate gisan. Gertaera errepresiboak pertsona jakin batek pairatutakoak dira, leku eta data jakin batean. Ildo horretan, gertaera errepresibotzat jotzen ditugu estatuko aparatuek, indar paramilitarrek edo beren laguntzaile zibilek ezarritako mota desberdinetako zehapenak, izan formalak ala informalak; 1936ko uztailaren 18tik aurrera ezarri nahi izan zen erregimen berriaren aurkako jokabide jakin batzuk zigortzeko helburuarekin egin zirenak. Hala, modu berean sailkatzen ditugu makineria errepresibo horren mehatxupearan zeudenek jasandakoak (erbesteratze mota desberdinak, bereziki), edota errepresio horren ondorio zuzen edo berehalako gisa identifika daitezkeenak.

Azken horiek errepresio kategorია eta azpikategoriak definitzerakoan azalduko ditugu.

Bada, datu-baseak oinarizko hiru informazio-maila ditu. Lehenbiziko taula batean pertsonaren oinarizko datuak daude bilduta; bigarrenak, berriz, gertaera errepresiboari buruzko informazioa jasotzen du. Ondotik, aurreikusita dago gertaera errepresibo bakoitzerako oinarizko informazio pertsonala hustea, baldin eta horretarako bidea ematen duen corpus dokumentalik badago. (Orain mota desberdinetako heriotza eta espetxealdien kasuan baizik ez da egin halakorik).

1. taula: *Gertaera errepresiboen eta pertsona errepresaliatuen txantiloietatik jasotako informazioa*

Alorra	Deskribapen laburra
- Katēgoria errepresiboa	- Gertakariari dagokion katēgoria errepresiboa
- Azpikatēgoria errepresiboa	- Gertakariari dagokion azpikatēgoria errepresiboa
- Udalēria eta kontzejua	- Gertaera errepresiboak kokaleku duen udalēria eta kontzejua
- Auzotasuna (udalēria eta probintzia)	- Gertaera errepresiboa pairatu zuen pertsonak une horretan zuen auzotasuna
- Egoera zibila	- Gertaera errepresiboa pairatu zuen pertsonak une horretan zuen egoera zibila
- Lanbidea	- Gertaera errepresiboa pairatu zuen pertsonak une horretan zuen lanbidea
- Enpresa	- Gertaera errepresiboa ematen den unean pairatzen duen pertsonak lan egiten zuen enpresa
- Militantzia kolektiboa	- Gertaera errepresiboa pairatu zuen pertsonak une horretan zuen militantzia kolektiboa

- Lehen mailako iturriak	- Gertaerari buruzko informazioa biltzen duten lehen mailako iturriak
- Bigarren mailako iturriak	- Gertaerari buruzko informazioa biltzen duten bigarren mailako iturriak

Hurbilketa kuantitatibo hori zuzenean lotua dago NMHDFren eskaera instituzionalarekin: errepresaliatuen datu-base bat sortzea, kontsulta publikora bideratua izateko. Horrela bada, enkargu honen oinarriko helburua ez da Nafarroan Gerra Zibilean eta frankismoan izandako errepresioaren errealitatearen gaineko azterketa analitiko eta interpretatzailea egitea. Helburua bestelakoa da: oinarriko bi behari erantzuna emanen dien datu-base izendun baten prestaketa gauzatzea. Hots, batetik, izandako errepresioaz informazioa eskatzen dutenei erantzunen zaie. Eskaera hori pertsona errepresaliatuen ahaideek eginga da bereziki. Bestetik, errepresioa sakonki aztertzeko ikerketarako oinarriak ezarriko dira erdietsitako datu bilketari eta haren funts dokumental gehigarriari esker. Horregatik, hasiera batean kuantitatiboa den tresna bat garatu beharra dago errepresio frankistaren inguruko historiografia berritzeko, betiere kontziente izanik ezinezkoa dela diktaduran izan diren indarkeria eta kontrol sozialerako tresna guztiak barne hartzea. Horietako batzuk gaur egun gure zenbaketan ez agertzeak ez du esan nahi erregimen politiko frankistaren konfigurazioan eta finkapenean garrantzirik ez dutenik, baizik eta metodologia osagarriak beharko direla beren tratamenduari ekiteko.

Zentzu horretan, datu-baseak erregimen frankistak kontrako portaerak zituztenen kontra edo erregimen errepublikanoarekin nolabait lotutako pertsonen kontra erabilitako zigor-tresna errepresiboak ditu ardatz. Hots, 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpeak jo eta menperatu zituen horien kontra. Horrek honakoa esan nahi du: bokazio totalitarioa duen diktadura-erregimen baten zigor-egintza zehatzetan zentratu garela

bereziki, ia aspektu guztiek (laborala, ekonomikoa, kulturala, erlijiosoa) kutsu hori baitzuten.

Ondorioz, beharrezkoa da dagoeneko historialari batzuek mahaigaineratu duten zerbait azpimarratzea (esaterako Oliver-ek 2005ean eta 2018an edo González Callejak 2012an). Biek nabarmendu zuten kontrol sozialerako estrategia zabalen barreneko errepresio erreminta zehatzak identifikatzeko premia. Kontrol sozialerako tresnak beren asmo zigortzailea aintzat hartuta ulertu behar diren arren, diktadura batean bereziki, ez ditugu gertaera errepresibotzat hartu diktadurak herritarrei modu orokorrean inposatutako betebeharrak horiek (esaterako, katolizismo nazionalaren erritualetara erlijio-ofizioetara joan beharra). Izan ere, horiek ere horrela sailkatzeak izugarri areagotuko luke errepresioaren biktimen kopurua, ia herritar guztietara zabalduta beharko litzateke haren eragina, eta erabat itxuraldatuko luke datu-basea bere erabilgarritasun kontzeptuala zalantzan jartzeraino. Hala, ez da erregimenaren erakundeek eragindako indarkeria instituzionala bere osotasunean jasotzen (Oliver, 2018). Horretarako, jokabide eta delitu desberdinen gainean ezarritako zigor bortitzak jaso beharko lirateke, bai eta atxilotuak edo presoak ere, zeinak normalean "komuntzat" jotzen diren. Horien artean, gainera, azken horiek zigor- eta hezkuntza-erakundeetan jasotako jipoiak eta kolpeak ere sartuko lirateke. Era berean, ildo berari jarraituta, ez da bildu milaka gaztek derrigortuta egin beharreko errekrutamendua, nahiz eta horietako askok bizitza galdu zuten edo ezinduak gelditu ziren bertan. Horri dagokionez, nabarmendu behar da indarkeria instituzionalaren alderdi sorta osoa ez zela 1936ko estatu kolpearekin jaio, ezta diktadura amaitu ondoren desagertu ere.

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea "egiturazko indarkeria" izenekoaren ondorioak ez ditugula datu-basean sartzen. Galtung-ek (1969) kontzeptu hau proposatu zuen hainbat politika ekonomiko zein sozialen ondorioak izendatzeko, eta frankismoaren kasuan, lehenbiziko hamarkadetako

miseria, gaixotasunak eta gosea kontzeptu honen barrenean sailkatu beharko lirateke. Dena dela, sinetsiak gaude horiek horrela aintzat hartzeak ez duela zentzurik gaur egungoa bezalako datu-base batean edo, behintzat, orain eratua dagoen modua kontuan izanik, diktaturako politikaren zuzeneko ondorioa izan arren. Politika ekonomikoen eta enpresen aktibitatean eragindako ondorioak barne hartzeko erabakiak eztabaidagai izaten jarraitzen du boteretik eragindako sufrimendua kontzeptualizatzeko orduan. Hain zuzen ere, gaur egun pil-pilean daude "egiturazko indarkeria" eta "min soziala" kontzeptuen eguneratzearen inguruko eztabaida interesgarriak. Horiei buruz hausnartzeak laguntzen ahal digu, besteak beste, erabaki politikoek modu globalean izandako ondorio sozialak ulertzen (Rivera, 2014). Hala ere, uste dugu zentzua duela, baita frankismoaren kasuan ere, boteretik populazioaren parte bati eragindako indarkeriaren gaineko ikuspegi integral hori bateragarri egiteak pertsona eta kolektibo jakin batzuei aplikatutako neurri errepresibo konkretuen azterketa zehatzarekin.

Ondorioz, estatuak kolektibo jakin batzuetako pertsonen aurka egindako errepresioa aztertzeraz mugatu gara. Errepresio horrek, jakina, helburu argi bat du: hasiera batean erregimen errepublikanoarekin identifikatutako tradizio sozial eta politikoen kontrako jazarpena egitea, orduko erregimen berriaren oposiziotzat jotzen diren horiei gogor egitea, alegia. Errepresiorako motibazioak izaera politikoa zuela aintzat hartuta, eta lehen errepresio-bolada handia behin igarota, baliagarria da analisi historikoa egiteko erregimenak jokabide jakin batzuk zigortzeko ematen dituen arrazoen artean bereizketa egitea. Horrela bada, gertaera errepresibo bakoitzarekin lotutako honako arrazoiak bereizi ditugu 1948ko gerra egoeraren indargabetzeaz geroztik gertatutakoak kontuan hartuta: oposizio politikoa, soziolaborala, hizkuntza- eta kultura- arrazoiak, arrazoi erlijiosoak eta bestelako motibazioak. 1948a baino lehenago izandako gertaera errepresioei dagokienez, eta motibazio horiek elkarren artean nola lotzen diren kontuan hartuta, eta horiek bereizteko

dauden zailtasunak oso handiak direla ikusita, arrazoi orokor bat jaso dugu: gerra-egoera.

Lurralde-eremuari dagokionez, datu-base honek estatu kolpea gertatu zenean Nafarroan bizi zirenen artean errepresioa pairatu zuten horien kasuak ditu aztergai, bai eta Nafarroan bertan izandako gertaera errepresiboak ere, nahiz eta horietako batzuk beste lurralde batzuetako biztanleek pairatu. Ondorioz, etorkizunean eratu daitekeen estatu mailako balizko errepresio egoera-orri batean bikoiztasunak ekiditearren –nahasmena besterik ez lukete eraginen errepresioaren egiazko eraginari buruz–, ez ditugu datu-basearen barrenean sartu Nafarroan jaio eta beste lurralde batzuetan bizi eta bertan errepresaliatuak izan zirenen kasuak. Azken horiek, izan ere, dagokien ikerlan edota datu-baseetan sarturik daude honezkero.

3) Kategoria eta azpikategoria errepresiboak: zigor-praktiken sorta zabalak.

Gertaera errepresiboak sailkatzeko funtsezko egiturak ez du zerikusirik haien kausarekin, baizik eta zigor mota desberdinekin eta horiek aplikatzen diren eremuekin. Helburu horrekin, sailkapen bikoitza gauzatu dugu: batek, askoz zabalagoa denak, 14 errepresio kategoriatan bereizten ditu gertaerak, besteak, ñabardura gehiago izanik, 62 azpikategoriatan sailkatzen ditu. Horrela, sailkapen bikoitz horrek ikuspegi zabalago baterako atea ireki ez ezik, analisi agregatuago batetik abiatuta, ñabardura gehiago gehitzea eta bereizketa gehiago gauzatzeko aukera ematen digu.

2. taulan ikus daitekeenez, definitutako kategoria horiekin saiatu gara errepresio frankistari buruzko historiografia berrienean aurrerapenak izan diren eremu guztiak barne hartzen. Horretarako, beharrezkoa izan den kasuetan, zehaztapenak erantsi izan dira Nafarroako errealitatera, edota

kontsultak egin ditugu izandako iturrietara moldatzeko. Hain zuzen ere, irizpide historiografikoen esparruan dago kokatua gure datu-basearen egituraren antolaketa. Horrakoa ez da inola ere oztopo instituzioek edota partikularrek, hala erabakiz gero, erabilera judiziala edo didaktikoa eman ahal izateko. Izan ere, hala jokatu da Iruñeko Udalak frankismoan izandako giza eskubideen urraketari buruz aurkeztu duen kereilaren testuinguruan. Hain zuzen, kereila horretarako aditu-froga gisa aurkeztu zen NMHDFk egindako txosten bat (Majuelo et al. 2016), bai eta Sartagudako udalarentzat egindako peritu-txostenaren kasuan ere (Majuelo et al. 2019). Ildo beretik, esparru juridikoetan eta historiografikoetan jarraitutako metodologiaren arteko desberdintasunak direla-eta –batik bat, Traverso-k (2000) azaldu ditu–, datu-base honen konfigurazioa tradizio historiografikoan dago oinarritua. Jakina, beste diziplina batzuen eta nazioarteko legezkotasunaren ekarpenak aintzat hartuta egin da betiere. Esaterako, egiaren batzordeek frankismoaren krimenen inguruan egindako proposamenei (Garmendia, 2009) begiratu zaie. Gainera, ez da kontuan hartzen edo juzgatu nolako erabilera eman liezaioketen frankismoaren biktimen ahaideek edota instituzio publikoek datu-basean bilduta dagoen informazioari eskakizunak aurrera eraman ahal izateko, esparrua edozein izanda ere. Datu-base honen antolaketarako oinarritzko irizpideetatik abiatuta, 14 kategoria errepresibo zehaztu ditugu, dagozkien azpikategoriekin. Jarraian deskribatuko ditugu.

2. taula: *Kategoria errepresiboak NMHDFren datu-basean*

Kategoria	Deskribapen laburra
Erailketa	- Gerra garaian indar kolpistek edo diktadurako polizia aparatuek, aparatu militar edo paramilitarrek egindako erailketak.
Heriotzak gatibualdian	- Kartzeletako bizi baldintzen edota bertan hartutako edo larritutako gaixotasunen ondoriozko heriotzak.

Heriotzak bestelako testuinguru errepresiboetan	- Errepresioaren testuinguru orokorrean ulertu beharreko heriotzak, nahiz eta zuzenean lotuta ez egon indar kolpisten edo diktadurako indarren errepresio ekintza batekin edo kartzelaldiaren baldintzekin.
Giltzapetua	- Askatasun-gabetzea zenbait tokitan.
Torturak eta eraso fisikoak	- Preso ziren pertsonen aurkako torturak, tratu txarrak eta erasoak.
Genero erasoak – sexudun biolentzia	- Generoa dela-eta, errepresaliatutako pertsonaren identitatea edota gorputza zigortzeko erasoak.
Lekualdatzeak	Joan-etorriak
Depurazioak eta errepresio soziolaborala	Garbiketak (depurazioak) eta errepresio soziolaborala
Errepresio ekonomikoa	Errepresio ekonomikoa
Kultura eta hizkuntzarekin lotutako jarduera errepresiboak	Kulturarekin edo hizkuntzarekin lotutako errepresioa
Arlo erlijiosoarekin lotutako jarduera errepresiboak	Arlo erlijiosoarekin lotutako errepresioa
Haur lapurtuak	Haur lapurtuak
Kargu publikoen kargugabetzea	Kargudunak, kargutik kenduak
Bestelako praktika errepresiboak	Bestelako praktika errepresiboak

Xedea hori izanik, bakoitza bere testuinguru historiografikoan azaldu dugu, eta zehaztu egin ditugu kategoria bakoitzerako erabili diren informazio-iturri nagusietako batzuk, kontuan hartuta horretarako ezinbestekoa dela Nafarroan izandako errepresio frankistari buruzko lan aitzindaria kontsultatzea (Altaffaylla Kultur Taldea, 2018), baita Memoria Historikoaren Dokumentu Funtserako egindako eta bildutako elkarrizketak ere. Kasu batzuetan, alderdi errepresiboa hain da zehatza, ezen beharrezkoa izan baita adibideren bat aipatzea ongi argitzearren zergatik dagoen jasota dagokion kategorian.

Lehenbiziko kategoria errepresiboa erailketei dagokiena da, bai epai judizial bat betetzearen ondoriozkoena, bai erailketa “estrajudizialena”. Bereziki 1936ko udaz geroztik erabilitako terrorearen estrategiaren esparruan izandakoak (Espinosa, 2010) biltzen ditu kategoriak, urte horietan gertatu baitziren Nafarroako erailketa gehienak (Altaffaylla Kultur Taldea, 2018). Garbiketa politikoan oinarritutako operazioa izan zen (Mikelarena, 2016), XX. mendearen erdialdeko hamarkadetan zibilen aurkako sarraski handiak egin ziren testuinguruan kokatua (Míguez, 2014). Altaffaylla Kultur taldearen obran bildutako datuak erabili ditugu. Obra horretan, datu horiez gainera, alde aurretik Jose Maria Jimeno Juriok egindako ikerketa aitzindariak ere jasotzen dira. Horietaz guztiez gainera, hainbat argitalpenetako datuekin osatu da informazioa (García-Sanz Marcotegui 2007, 2012, 2015; Mikelarena, 2016; Urrizola, 2017, Ezkietza, 2018). Era berean, kontsultatu egin dira hainbat artxibo (horien artean, nabarmentzekoak dira zenbait herritako erregistro zibilak, Nafarroako Komandantzia Militarreko artxiboak, eta Iruñeko eta Tuterako Erregistro Berantiarren Funtsa) eta Nafarroako Gobernuak hilobien Mapan oinarri harturik egindako indusketetatik abiatuta egindako DNA analisiak ere.

3. taula: **Erailketa** kategoriarekin lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Erailketa “estrajudiziala”	- Prozesu judizialik gabe, kolpisten indar militar, politiko edo paramilitarrek egindako hilketa.
Epaiketa ondoko erailketa	- Prozesu judizial baten ondorio gisa egindako hilketa, emaitza heriotza zigorra izanik.

Nahiz eta askotan gatibualdiaren baldintzen ondorioz hildakoak eta eraildako pertsonak zerrenda berberetan agertzen diren, garrantzitsua

da haien arteko bereizketa egitea kontzentrazio-esparruetako eta espetxeetako bizitzaren gogortasuna eta miseria zenbaterainokoa zen argi erakusteko. Oraindik ere frankismoaren inguruko historiografiaren erronketako bat da hari buruzko zenbaketa zehatza egitea, eta uste dugu horretarako aurrerapausoa dela biak bereizita sailkatzea hildakoak biltzen dituen datu-basean. Nafarroaren kasuan, gainera, baldintza oso gogorreko kartzelak izan ziren, Ezkabako gotorlekukoa kasu, eta horrek ezinbestean eragina izan zuen errepresioaren ondorioz hildako pertsonen kopuruan. Hala diote Alforjaren eta Sierraren ikerlanak (2006) Ezkabako gotorlekuari buruz, eta Mendiolarenak eta Beaumontenak (2006) bortxazko lanen ondorioz hil ziren presoek. 4. taulan ikus daitekeenez, kategoria horretan hainbat azpikategoria bereizi dira, zehaztu beharreko hainbat kasuistikarekin bat datozenak.

4. taula: **Heriotzak gatibualdian** kategoriarik lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Gaixotasuna eta kartzelako baldintzak	- Preso egonda pairatutako gaixotasunen eta lesioen ondorioz kartzelan hildakoen kasuak.
Suizidioak gatibualdian (edo atxilotzeko momentuan)	- Preso egonda edo atxilotuak izateko zorian zeudenean beren buruaz beste egin zutenen kasuak.
Istripuzko heriotza, harrapatzeko edo ihes egiteko unean	- Harrapatua izatea galarazi nahian edo ihes egiten saiatzean hartutako arriskuen ondoriozko istripuzko heriotza. (Adibidez, ihesean ari zela, leihotik salto egin eta orduan hil den pertsonaren kasua).
Aske utzi eta berehalako heriotza	- Sailkapen honetan jasotzen dira aske utzi eta ondorengo egunetan hil direnen kasuak (preso egondako denboran hartutako gaixotasunen edo pairatutako lesioen ondorioz).

Hildakoei dagokienez, bestelako kategoriatan sailkatu dira indar kolpisten ekintza errepresibo batekin edo gatibualdiaren baldintzekin zuzenean lotutakoak izan ez, baina, zalantzarik gabe, errepresioaren testuinguru osoaren parte bezala hartu behar direnak. Aurreko kategoriekin alderatuta kasu gutxi aurkitu diren arren, analisi kuantitatiboa ere zehatzagoa izateko aukera ematen du erregistro berriazko bat eskaintzeak, eta normalean oharkabean iragan daitezkeen errepresioaren beste ondorio batzuk erakusten laguntzen du.

5. taula: **Heriotzak bestelako testuinguru errepresiboetan kategoriarekin lotutako azpikategoria errepresiboak**

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Suizidioa	- Errepresioaren zuzeneko edo zeharkako eraginak pairatu zituzten pertsonen suizidioak
Ihes egin eta fronte errepublikarrean hildakoak	- Errepublikaren defentsako borrokan hildakoak, erretagoardia kolpistatik ihes egin behar eta gero.
Beharturik "boluntario" gisa izena eman ondoren hildakoak	- Kolpe militarra defendatzeko borrokan hildakoak, lehenbiziko hilabeteetan, haien edo beren familien aurkako mehatxuengatik boluntario gisa aurkeztu eta gero.
Erresistentzia ekintzetan eraildakoak edo hildakoak	- Kolpearen edo diktaduraren aurkako erresistentzia ekintzetan hildako pertsonak. (Adibidez, propaganda klandestinoa eramateko ibai bat zeharkatu nahian itota hil zen pertsonaren kasua).
Beste testuinguru errepresibo batzuetan eraildakoak	- Kolpisten errepresiorako makineriak eraso egin gabe ere, errepresioaren testuinguruan erail dituztenen kasuak. (Adibidez, landa eremuan familia oso baten erailketa).

Gatibualdiaren erregimenari/modalitateari dagokionez, hainbat ikertzailek dagoeneko agerian utzi dute frankismoaren garaiko espetxe-sistemen aniztasun eta hedadura handia zela oso (Rodríguez Teijeiro,

2011; Gómez Bravo eta Lorenzo Rubio, 2013), baita kontzentrazio-esparruen edota bortxazko lanetarako eremuena ere (Rodrigo, 2005 Mendiola, 2013 eta García Funes, 2017). Horrela, bada, Nafarroaren kasuan hainbat azpikategoriaren arteko bereizketa egin da gatibualdiei dagokien kategoriaren barruan. Hainbat argitalpen eta dokumentu-funts hustu ondoren izan dugu, esaterako, hainbat espetxetan preso izan ziren milaka pertsonaren berri: azpimarratzekoak dira, adibidez, Iruñeko Kartzela Probintzian (EMG Funtza, Casanova Funtza), Ezkabako zigor-espetxean (Alforja eta Sierra, Ezkieta Funtza eta Hedy Herrero Funtza) eta bortxazko lanen batailoietan (Memoriaren Bideak Funtza) izandakoak.

6. taula: **Giltzapetua** kategoriarekin lotutako azpikategoria errepresiboak.

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Kartzela probintziala edo penala	- Kartzelaldia kartzela probintzian edo penalean.
Barruti judizialeko kartzelak edo kartzela lokalak	- Kartzelaldia barruti judizialeko tokiko kartzeletan edo kartzela lokaletan.
Kontzentrazio-esparrua – Presoen gordailua	- Kartzelaldia kontzentrazio-esparruetan edo gerra-presondegietan
Lan batailoia	- Kartzelaldia mota desberdineko bortxazko lanen batailoietan (Langileen Batailoia, Langileen Zigor-batailoia, Soldadu Langileen Zigor-batailoia, Soldadu Langile Kondenatuen Zigor-batailoia...) eta Presoen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritzaren meneko lan-unitateak.
Diziplinazko Ospitalea	- Kartzelaldia diziplinazko ospitaleetan.
Atxilotze zentro inprobisatuak	- Atzemateak, atxilotzeak eta gatibualdiak inprobisatutako atxilotze zentroetan, hala nola behin-behineko kartzeletan edo indar politiko frankisten edo falangisten kontrolpeko kartzeletan.
Polizia etxeak, kuartelak	- Atzemateak, atxilotzeak eta gatibualdiak

	indar polizialen menpeko instalazioetan.
Erbesteko kontzentrazio-esparrua	- Gatibualdia erbesteko kontzentrazio-esparruetan, (Aljerian, Frantzia eta Alemanian).
Destakamentu penalak eta zigor-koloniak	- Kartzelako administrazioaren menpeko destakamentu penaletan edo zigor-kolonietan egindako lana.
Kartzelan lan egin beharra	- Kartzelan egindako askotariko lanak, izan kanpoko tailerretan edota kartzelaren beraren barrenean.
Zehaztu gabeko itxialdia	- Haren inguruan informazio zehatzagorik lortu ez den gatibualdia.

Presoek etengabe pairatu zituzten tortura, eraso eta tratu txarrak espetxe eta zentro frankistetan. Zalantzarik gabe, horiek dokumentatzea bereziki zaila da, ahozko testigantzetatik abiatuta baizik ezin baita haien inguruko informaziorik jaso. Gauzak horrela, jakin badakigu datu-baseko kategoria horren barrenean bildutako gertakari errepresiboak benetan zigor-espazioetan izandakoetatik bakar batzuk baizik ez direla. Are gehiago, hainbat ikerlanek agerian utzi bezala, batzuetan zaila izan daiteke gertakari horiek itxialdietan eta espetxeetan lan egitera behartuta zeuden horietan zituzten baldintzak aintzat harturik, eguneroko errealitatetik bereiztea, garaiko indarkeria instituzionala zenbatekoa zen kontuan izanda (Oliver, 2018; Mendiola, I., 2014). Dena dela, uste dugu garrantzitsua dela horiek jasota uztea, espetxealdi frankistaren berezko izaeraren parte baitziren. Horrakoa agerian gelditu da, bai espetxe frankisten inguruan egindako sintesian (Sobrequés, 2004), bai Euskal Autonomia Erkidegoaren kasurako egindako ikerketa monografiko batean ere (Etxebarria et al., 2017). Gainera, eta oraindik ere tratu txarren eta torturen artean egin beharreko bereizketa eztabaidan dagoen zerbait den arren, zuzenbidearen esparruan zein gizarte zientzien kasuan guk ñabardura hori gehitu nahi izan diogu oinarri bezala Nazio Batuen Erakundearen 1984ko *Torturaren eta bestelako*

tratu edo zehapen krudel, anker edo iraingarrien aurkako Konbentzioa. Horren arabera, badira torturatzat hartzera iristen ez diren tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarriak (Etxebarria et al., 2017). Bataren eta bestearen arteko muga lausoa dela kontuan izanik, horrelakoak pairatu dituen pertsonak bere bizipenaren inguruan egindako kontaketa edo narrazioa bera hartu dugu guk aintzat modu batera ala bestera sailkatu behar ote den erabakitzeko.

7. taula: **Torturak eta eraso fisikoak** kategoriarekin lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Tortura	- Preso edo atxiloturik ziren pertsonen aurka eragindako min, eraso edo oinaze larrien multzoa, izan fisiko edo psikologikoak.
Tratu txarrak	- Preso edo atxiloturik ziren pertsonen aurka eragindako min, eraso edo oinaze larrien multzoa, izan fisiko edo psikologikoak, baina tortura gisa uler daitezkeen horiek baino intentsitate maila txikiagoak.

Aurreko kasuan ikusi bezala, sexu eta genero identitateekin lotura duten gertakari errepresiboen artean ere garrantzitsua da bereizketa egitea. Bai eduki sinbolikoagoa eta umiliagarriagoa duten zigorren kasuan, bai eta eraso fisiko zuzenak barne hartzen dituzten horienetan ere. Une honetan, berritzeko bidean da frankismoan izan zen errepresio mota horri buruzko bibliografia; kasu horiek ikusaraziz ez ezik, baita kontzeptualki teorizatuz (Maud, 2008, Nash, 2013 eta Egido, 2018) eta diktaduran oinarritutako beste erregimen batzuekin alderaketak eginez ere (Sanz Gavillon, 2017). Nafarroaren kasuan, ikerketa berriak egitea beharrezkoa da oraindik ere, baina badugu diktaduran emakumeei zuzendutako politikekin osatutako marko orokorraren ezagutza (Piérola, 2018), baita ehunka kasu konkrituren berri ere, gehienbat Altaffaylla

Kultur Taldearen lan aitzindariak (1986 / 2018) bildutako gertakari errepresiboen kasuetatik abiatuta.

8. taula: **Genero erasoak / Sexudun biolentzia** kategoriekin lotutako azpikategoria errepresiboa

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Ilea arrasean moztea	- Emakumeei egindako ile mozketak iraingarriak.
Ibilaldi umiliagarriak	- Umiliatzea helburu, espazio publikoetan ibilaldiak egitera behartzea (errizino-olioa edan ondotik, oihuak, irainak, isekak jasateko...)
Sexu erasoak	- Kutsu sexualeko edo sexu asmoko bestelako eraso fisikoak.

Politika frankistaren ondorioetako beste bat herritarrek, dinamika errepresiboetatik ihesi, egindako joan-etorri masiboak dira, izan beste herrialde batzuetara edo penintsula barrenaldera, gerra bitartean bereziki. Nafarroaren kasuan, oraindik ere beharrezkoak dira pertsona horien mugimenduen inguruko zenbaketa egiten duten ikerketa berriak, kolpearen ondoko lehen asteetan izandakoei erreparatuko dietenak batez ere. Dena dela, erbesteratzeari buruzko informazio esanguratsua biltzen duten bi argitalpen ditugu dagoeneko eskuragai. Hain zuzen, García-Sanzek koordinatutako hiztegia (1999) eta Frantziaren hegomendebaldean kokatuta dagoen Gurseko kontzentrazio-esparruari buruz Chuecaren egindako ikerketa (2006). Halaber, beste hainbat iturri esker, hala nola trenbideetako langileen depurazio txostenak (Salamanca Memoria Historikoaren Dokumentu Zentroa), Altaffaylla Kultur Taldearen ikerketa kolektiboa eta Vargas Alonsoren ikerlana (1994), lehenbiziko hilabeteetan gobernu errepublikanoari leial zitzaion lurraldera ihes egin zutenen berri dugu. Informazio hori, dena dela,

ahozko testigantzekin osatu beharko da gerora, errepresaliatutako familiek, beren jaioterrietan bizitzea ezinezkoa zitzaiela ikusita, estatu espainiarreko beste toki batzuetara egindako migrazioak ere kontuan hartu eta jasota gelditu daitezten.

9. taula: **Lekualdatzeak** kategoriari lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Erbesteratzea	- Errepresioari ihesi edo errepresalien beldur Espainiako estatutik ateratzeko norik bere herria abandonatzea.
Bortxazko deserriratzea	- Norik bere herria uztea tokiko autoritateek behartuta edo epai penalengatik.
Alde errepublikanora egindako ihesa	- Gerra bitartean zona errepublikanoetara ihes egitea, errepresio frankistaren eraginak pairatzearen beldur edo Bigarren Errepublikaren defentsan laguntzeko asmoarekin.
Barreneko migrazioa arrazoi politikoengatik	- Bizitokia aldatzea, estatu espainiarraren barrenean, pairatutako errepresaliengatik edo horiek jasatearen beldur.
Zehaztu gabeko joan-etorriak	- Haien gaineko informazio gehiagorik ez dagoen arrazoi politikoko mugimenduak.

Indarkeria eta errepresioa izan ziren hasieratik lan-munduan ere, jarduera sindikalak eta grebak debekatuta baitzeuden. Zentzu horretan, lan merkatuan ordena militarra inposatuta egoteak antzekotasun handia erakusten du beste erregimen faxista batzuetan hartu izandako neurriekin (Vilar, 2013). Testuinguru horretan, lan-egoeran eragin zuzena zuten zigor zehatzak pairatutako pertsonen kasu guztiak jaso nahi izan ditugu depurazioen eta errepresio soziolaboralaren kategoriaren barrenean. Batik bat, instituzio anitzetako funtzionario publikoen depurazio edo garbiketa prozesu orokorrekin lotutakoak (Cuesta et al.,

2009) eta enpresa handietako langileek, trenen industriren barrenekoek kasu, (Polo Muriel, 2015) pairatu zituztenenak. Nafarroan ere eragin handia izan zuten. Gainera, era berean, bildu egin ditugu estatu espainiar osoan (Molinero eta Ysàs, 1998) zein Nafarroan (Iriarte, 1995; Pérez Ibarrola, 2017) langile mugimendua eta mugimendu sindikalak indartzen joan ziren heinean, 50eko hamarkadaz geroztik, denborarekin areagotutako zigor mota desberdinak ere. Bidean, informazio asko jaso dugu instituzioetako eta trenen industriako enpresetako depurazioari buruzko informazioa biltzen duten dokumentazio anitzetatik abiatuta. Era berean, baliagarri izan dira Nafarroako Gobernuak depurazioaren biktima izan ziren maisu eta maistrei egindako omenaldirako erabili ziren ahozko iturriak eta frankismo berantiarren inguruko argitalpenak. Horiek guztiak baliatuta, posible izan da urtetan maiz ikusezina izan den errepresio frankistaren alde horren informazioa osatu ahal izatea.

10. taula: **Depurazioak eta errepresio soziolaborala** kategoriari lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Behartuta egin beharreko lan informalak	- Partikularren edo instituzioen mesederako lanak egitera behartzea, inolako prozesu judizial edo administratiborik gabe (landa eremuan gertatu zen bereziki, gerraren lehenbiziko hilabeteetan)
Kaleratzeak	- Lanpostutik kaleratzea behin betiko.
Desgaitzea	- Lanpostu jakin batzuetan jarduteko debekua.
Zerrenda beltzetan sartzea	- Patronalaren zerrenda beltzetan deiturak sartzea kaleratzearen ondotik beste lanpostu bat ez zitzaiela emanen ziurtatze aldera. Arautu gabeko zigorra da, edonolako prozesu penal edo administratiboetatik kanpo gauzatutakoa.
Lanaren eta soldataren	- Denbora jakin baterako lanpostu batetik

behin-behineko etetea	botatzea.
Lanpostuaren kategoria eta ordainsaria jaistea	- Zigor baten ondorioz, lan kategorian behera egitea.
Enpresaren onura sozialetarako eskubidea kentzea	- Enpresa baten onura sozialak ukatzea jokabideren batengatik, errepresalia modura.
Lan jazarpena eta mehatxuak	- Jazarpena, tratu iraingarria edo mehatxuak lan esparruan.
Beste enpresa batera lekualdatzea	- Beste herri batean kokatutako lanpostu batera lekualdatzea zigor baten ondorioz.

Gizartean eragin handiena izan duten beste alderdi errepresiboetako batzuk errepresio ekonomikoarekin lotutakoak dira, beste batzuk bezain begi bistakoak ez diren arren. Kategoria horrek barne hartzen ditu, esaterako, mota desberdineko isunak, zigorrak, lapurretak eta konfiskazioak. Estatu mailan, Álvaro Dueñasen (2006) ikerketak erreferente izan dira sare hauek azaltze aldera. 1939. urteko Erantzukizun Politikoen Legearen aplikazioa dute ardatz. Nafarroan, César Layanak (2012) gaiaz egindako ikerketak balio izan du gure azterketa informazio aberatsez hornitzeko, eta hala egiten jarraituko du oraindik ere. Horrela, bada, posible izango da errepresio mota horrek errepresaliatuak izan ziren ehunka familiatan izan zuen eragina ezagutzea.

11. taula: **Errepresio ekonomikoa** kategoriarik lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Ondasunen konfiskatzea (prozedura)	- Ondasunen konfiskazioa espediente baten aginduaren ondotik.
Lapurreta	- Errepresaliatutako pertsonen pairatutako lapurretak, pertsona edo indar kolpistek egindakoak eta tartean inolako espediente

	penal edo administratiborik gabeak.
Isunak (erantzukizun politikoen espedienteak)	- Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalak abian jarritako espedientearen ondotik ezarritako isunak

Bestalde, garrantzia eman nahi izan diogu kulturarekin eta ofizialak ez ziren hizkuntzekin lotura duten praktika errepresiboak jaso eta horien berri emateari. Kasu horretan, erlijioarenean gertatu bezala, ez ditugu bildu egunerokotasunean politika kulturala eta hizkuntza politikaren inposizioa jaso zituzten pertsonen kasuak, horrek biztanleria osoari eragin baitzion, denak hartu beharko genituzke-eta biktima gisan. Nafarroaren kasuan, euskarak jasandako errepresioarekin lotuta, hainbat ikerlanetan jaso da informazioa (Torrealdai, 2018). Gure datu-basean, bada, beren hizkuntza erabiltzeagatik edo arrazoi kulturalengatik zuzenean eta neurri konkretuen bidez zigortuak izan ziren horien kasuak bildu ditugu kategoria honetan.

12. taula: **Kultura eta hizkuntzarekin lotutako jarduera errepresiboak kategoriarekin lotutako azpikategoria errepresiboak.**

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Hizkuntza	- Errepresio linguistikoarekin lotutako praktika errepresiboak
Zentsura	- Testu idatzien debekua edo adierazpen askatasunaren murriztea zentsuraren bidez.
Izen aldaketa	- 36ko estatu kolpearen aurretik jaio eta erregistro zibilean inskribatutako haurrek pairatutako izen aldaketak.
Hizkuntzarekin edo kulturarekin lotutako bestelako praktika errepresiboak	- Hizkuntzarekin edo kulturarekin lotutako bestelako praktika errepresiboak.

Errepresioaren gaineko azteketan kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat erlijioa da. Nazionalkatolizismoaren inposizioak erabat baldintzatzen zuen biztanleriaren bizitza sozial, politiko eta ekonomikoa frankismoaren garaian (Louzao eta Montero, 2015), eta erlijioak funtsezko papera zuen zigor erakunde desberdinak legitimatzeko eta kudeatzeko orduan. Dena dela, beharrezkoa da, horiek biltzeaz gainera, ezarrita zeuden eredu kontrako jarrerak zituztenen aurka erabili izandako zigor zehatz edota inposizioak identifikatzea. Kasu honetan, bereizketa bat egin dugu. Batetik, zigorren motibazio erlijiosoa (hainbat errepresio modalitatetan islaturik ikusi izan zena) eta norbanakoek pairatu zituzten zigor konkretuak eta inposatu zitzaizkien jokabide sortak (gizarte osoari eragin ziena) sailkatu ditugu. Bestetik, birkatolizazioaren estrategia deritzonaren barrenean biltzen diren hainbat jokabide ere bai (Laga-Nuño, 2017).

13. taula: **Arlo erlijiosoarekin lotutako jarduera errepresiboak** *kategoriari lotutako azpikategoria errepresiboak*

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Birkatolizatzea: kredo katolikoaren araberako ezkontza	- Derrigorrez erritu katolikoei jarraikiz ezkontzeko agindua aurretik prozedura zibilean oinarrituta ezkondata zeuden horiei.
Birkatolizatzea: kredo katolikoaren araberako bataioa	- Bizitzako lehenbiziko hilabete edo urteetan, estatu kolpearen aurretik, bataiatuak izan ez ziren haurrak bataiatzera behartzea.
Izaera erlijiosoko bestelako praktika errepresiboak (inauteria,...)	- Erlijioarekin lotutako bestelako praktika errepresiboak

Aparteko aipamena merezi du nazioarteko legerian bereziki kontuan hartu den beste modalitate errepresibo batek, hain zuzen, diktadurarekin lotura estua zuten familia edo erakundeen esku uzteko

errepresaliatutako familiei haur txikiak lapurtu izana: haur lapurtuak, umeen lapurreta. Errealitate horrek ikerketa berrien beharra du oraindik ere, eta hainbat oztopo ditu bidean: dokumentazio falta eta batzuek informazio hori ezkutuan gordetzeko egindako ahalegina, alegia. Hala ere, Vinyesen, Armengouren eta Bellisen (2002) ikerketa aitzindariak geroztik, nabarmen egin da aurrera, bai ikuspuntu historikoari dagokionez, baita ikuspegi penalari begira ere. Horrela, aurrerapausoak eman dira nazioarteko ikerketa alderatuak egin ahal izateko (Barber eta Jimeno, 2017).

14. taula: **Haur lapurtuak** kategoriari lotutako azpikategoria errepresiboak

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Haur lapurtuak	- Familia batzuei kendutako umeak, erregimen frankistarekin bat egiten duten familia edo erakundeetan heziak izateko.

Erregimen berriak ezarritako beste zigorretako bat erakundeetako kargudunak modu masiboan kargugabetzea izan zen, erakunde horiek edonolakoak izanagatik ere. Gobernuan zein herri eta hirietan gertatu zen. Nahiz eta zigor mota hori, askotan, hilketen ondorio zuzena edo atxiloketen eta espetxeratzeen osagarria izan gerrako lehen hilabeteetan, ezin dugu ahaztu indar berezia izan zuela prozedura honek botere politiko frankistaren egitura erabat birmoldatzeko, udalekin hasi eta estatuko maila gorenekin buka. Nafarroaren kasuan, hori nabarmena izan zen espetxeratutako kargudunei dagokienez, eta, are gehiago, eraildakoak izan direnen kasuei erreparatuta. Aipatzekoa da, esaterako, abiapuntu gisa, Nafarroako Parlamentuak omenaldia egin zuela eraildako kargudunei (Majuelo et al., 2016). Dena dela, oraindik ere beharrezkoak dira II. Errepublikako erakundeetako kargudunen kargugabetze masibo horiek herriz herri izandako eragina erakutsiko dituzten ikerketa berriak.

15. taula: Kargu publikoen kargugaberzea *kategoriari lotutako azpikategoria errepresiboak*

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Kargu publikoen kargugaberzea	- II. Errepublikako kargudunei kargua kentzea 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpeaz geroztik

Bukatzeko, askotariko zigor eta zehapenak jaso nahi izan ditugu azken kategoria batean, “Bestelako praktika errepresiboak” izenburupean. Maiz eremu informaletan azaldutakoak izan direnak bildu dira honetan, eta, beraz, nekez dokumentatu eta zenbatzen ahal dira. Dena dela, horiek analisi kualitatibo batetik abiatuta aintzat hartzeak aukera ematen digu errepresioak esparru sozialera, familiakora, eta pertsonalerako irismen-maila hobeki ulertzeko, ondorio psikologikoak zein izan ziren ohartzeko atea irekitzen baitu. Ildo horri jarraikiz, bat gatoz Vegarekin (2014) gai horiek errepresioaren inguruko ikuspegi globalean kontuan hartu beharra dagoela dioenean. Horrela bada, haien izaera informalagoak, estatuko makineriatik urrun baitaude, ez dezala ezkutatu milaka pertsona eta familiarentzat horiek izan zuten pisua.

16. taula: **Bestelako praktika errepresiboak** *kategoriari lotutako azpikategoria errepresiboak*

Azpikategoria	Deskribapen laburra
Bestelako zigorrak	- Bestelako zigorrak
Desoreka psikiko eta psikosomatikoak	- Errepresio frankistak eragindako desoreka psikiko eta psikosomatikoak, bai lehen pertsonan baita familia testuinguruan ere.
Nork bere buruari eragindako lesioak eta suizidio saiakerak	- Nork bere buruari eragindako lesioak eta suizidio saiakerak zuzenean errepresio frankistarekin lotutako egoeretan.
Heriotzarik gabeko fusilatzea	- Exekutatua izan behar zuten pertsonen heriotza ekiditea lortzen duten kasu horiek, izan ihes egitea erdietsi zutelako ala

	eragindako zauri motarengatik.
Satorra	- Errepresioari ihes egiteko, bere etxean edo beste gordeleku batean ezkutaturik bizi izandako pertsona.
Mehatxuak	- Askotariko mehatxuak
Beharturik "boluntario" gisa izen ematea	- Beharturik izena eman dutenei buruz aipamen berezia egiten da; izan ere, pertsona horiek armada frankistaren unitateetako "boluntario" gisa agertzen dira dokumentazioetan.
Miaketak	- Etxez etxeko miaketak
Emaitzatzat artxibatzea edo absoluzioa duen prozesuaren irekiera	- Mota desberdinetako prozesuen irekiera (kontzentrazio esparruetako sailkatzea, garbiketa espedienteak, sumario judizialak...) zeinak azkenean artxibatuak izan baitziren, edo absoluzioa izan zuten azken emaitza.

4) Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtzaren datu-base berriaren ezaugarri teknikoak.

Proiektu honetan, NMHDFrako aplikazio berriaren azterketa eta implementazio prozesu oso bati ekin zaio. Horretarako, lehen aipatu bezala, aurretik erabiltzen zen aplikaziotik abiatu ginen, hots, *Nomes e Vocesetik*, eta ikusi zen guztiz berria izanen zen aplikazio bat egin beharra zegoela, NMHDFren gaur egungo helburuen euskarri gisa balioko zuena. Zehazki, aplikazio bat garatzeko premia zegoen errepresaliatuei buruzko informazio guztia modu eraginkorrean gorde ahal izateko datu-base batean, ondoren, hori baliatuta, jendeak kontsultak egin ditzan: bai edozein herritarrek, baita NMHDFan parte hartzen duten ikertzaileek ere.

Helburua erdiesteko, 2017an hasi zen prozesua. Asteroko bilerak egiteari ekin zitzaion urte hartan, aplikazioaren azterketa eta diseinua egiteko. Aldi berean, aplikazioa implementatu eta martxan jartzeko ezarri beharko ziren software-tresnak eta hardwarea zein izanen ziren erabaki zen.

Honakoak dira NMHDFren aplikazio berria garatzeko teknologia eta tresnak: datuek Gestor de Base de Datos Relacional-en sistema erabiltzen dute, PostgreSQL, SQL datuen kontsultarako eta horiek definitzeko lengoaia bezala erabilia. Sarbide irekiko/publikoko webguneak HTML, CSS JavaScript eta PHP elementuen konbinazio bat darabil edukia sortzeko eta erakusteko. Bestalde, NMHDFko ikertzaileek erabiltzen duten kudeaketarako barne-orriak CRUDBooster modulua baliatzen du; horrek PHPrako frameworko Laravel delakoaren gainean egiten du lan.

Jarraian, sistema eratzen duten osagaien funtzionamendua zehaztuko dugu.

a. Datu-basea


Datu-basea berritzeko, *Nomes e Voces* proiektua hartu zen abiapuntu gisa. Dena dela, erabat berri zen haren diseinua, horrek ezin baitzuen jasan datu-base berrian kudeatu nahi zen informazioaren egitura, eta *Nomes e Vocesen* inguruan egin ezin baitziren egin beharreko kontsulta jakin batzuk.

Datu-basearen ideia nagusia gertakari errepresiboak pairatu zituzten pertsona errepresaliatuei buruzko informazioa gordetzea da, batzuek eta beste batzuek jasandako gertakari kopurua oso aldakorra izan badaiteke ere (oso garrantzitsua da adieraztea horietako bakoitzari zer kategoria eta azpikategoria dagozkion sailkapenean). Hainbat motatakoak izan daitezke. Gertakari errepresiboen tipologia desberdinak biltzeko, osagarri gisa balio dezaketen taula berriak sor litezke etorkizunean; oraingoz, baina, kartzelaldia eragin zuten egitateena, interesatzen baitzaigu ekintzaren gainean dauden erregistroak jasotzea. Erregistro horiek, era berean, pertsona batek bere espetxealdian kartzela desberdinen artean egindako mugimenduen gaineko informazioa jasotzeko ere balio dute.

Kontzeptu horietako bakoitzarentzat taula desberdin bat dago. Horiek denek osatzen dute datu-basearen egitura nagusia, lehenbiziko irudian ikus daitekeen bezala. Gainera, badira taula osagarri batzuk atal oso konkretuetan informazioa zehazten dutenak. Jarraian, taula nagusi bakoitzaren laburpena egiten da, bertan dagoen informazioarekin batera, hainbat taula osagarritan banatuta:


- “Errepresaliatuak” izeneko taula (2. irudia):
Gerra zibilean eta frankismoan gertakari errepresiboren bat pairatu zuten pertsonen gaineko informazioa gordetzen du. Biktimen identitateari buruzko informazioa jasotzen da, baita haien jaioterriei, auzotasunei eta hil ziren lekuei buruzkoa ere. Horretaz gain, bilduta ageri dira bestelako informazio pertsonalak ere, hala nola, biktimaren lanbidea, bere militantzia kolektiboa eta bere gurasoen, senarraren edo emaztearen, edo seme-alaben identitateak. Zehazturik ageri dira sartutako datuak jasotzeko baliatutako iturriak ere.
- “Gertakari errepresiboak” taula (3. irudia):
Datu-basean erregistratuta dauden pertsonak jasan zituzten gertakari errepresibo zehatzei buruzko informazioa. Gertakaria pairatu zuen pertsonaren datu pertsonalak daude jasoak, ekintza gertatu zen unea erreferentziatzat harturik. Gertakari mota ere bildua ageri da. Bestalde, iturriak aipatzen dira.
- “Kartzelaldien erregistroak” taula (4. irudia):
Errepresaliaturen bati ezarritako espetxealdi baten ondorioz sortutako erregistroak. “Itxialdiekin” lotutako gertakari errepresiboen gaineko informazioa hartzen du barne, batik bat erregistroaren data, zigor mota eta iraupena, edota presoari buruzko informazio pertsonala.
- “Kartzeletako mugimenduak” izeneko taula (5. irudia):

Preso batek kartzela batetik bestera izan zituen lekualdatzeak jasotzen dira, eta kartzelaldien erregistroak baliatu dira horien berri izateko. Egon ziren espetxeei buruzko informazioa gordetzen du; esaterako, sarrera- eta irteera-datak.




Powered by yFiles


1. irudia.- Datu-baseen taula nagusiak




2. irudia.- "Errepresaliatuena taula", eta zerrendak



3. irudia.- "Errepresio ekintzen taula", eta zerrendak



4. taula.- "Kartzelaldiko erregistroak", eta zerrendak



5. irudia.- Kartzeletako mugimenduen taula, eta zerrendak.

b. Sarbide irekiko/publikoko informazioaren kontsultarako tresna

<http://memoria-oroimena.unavarra.es> webgunera URL-tik sartzen ahal gara, eta datu-basean erregistratuta dagoen edozein pertsonaren datuen gaineko kontsulta egiteko aukera eskaintzen da bertan. Asmoa hori izanik, bilatzaile bat eskaintzen du webgune nagusiak, bilaketak irizpide batzuk aintzat hartuta iragazteko aukerarekin. Honakoak, hain zuzen: pertsonaren izen-abizenak, jaioterria edo auzotasuna, militantzia kolektiboa eta jasan zuen gertaera errepresibo mota. (6. irudia)


Bilaketa balio zehatzak erabilita egitearen ondorioz, zerrenda bat agertuko da orrialdearen behealdean, ezarritako iragazkiak/baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien izenekin (7. eta 8. irudiak). Era berean, aukera dago pertsona horien guztien identitateak jasotzen dituen zerrenda duen pdf bat sortzeko (9. irudia).


Zerrendako pertsonaren bati buruzko informazio gehiago lortu nahi bada, izenaren gainean klik egiten ahal dugu bere gaineko informazio zehatzagoa biltzen duen orrialde batera ailegatzeko (10. irudia). Ikustaldi/bista honetan agertuko dira bai errepresaliatuari buruzko datu pertsonalak, baita taula bat ere, harekin lotura duten gertakari errepresibo desberdinen gaineko informazioa eta pertsonak jasandako kartzeletako mugimenduak jasoko dituen, espetxealdiren bat jasan zuten horien kasuetan.

Azkenik, fitxa pertsonal baten bistako "Txostena inprimatu" botoia sakatuz gero, laburpen itxurako PDF bat sortuko da bere datuekin, informazio horren inprimaketa errazteko (11. irudia).

Inicio Proyecto Noticias Informes / Documentos Castellano Euskera

Fondo Documental de la Memoria Histórica de Navarra Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Dokumentazio Fonda





Inicio

Nombres para el recuerdo

Nombres de hombres, nombres de mujeres. Nombres de miles de personas que sufrieron las diferentes facetas de la represión franquista en Navarra entre 1936 y 1975. **Miles de nombres que pueden consultarse en esta base de datos**, confeccionada a partir de investigaciones ya publicadas, del vaciado sistemático de los archivos históricos disponibles y de la recogida de testimonios orales. El proyecto está desarrollado por un equipo de investigación de la Universidad Pública de Navarra, merced a un convenio entre esta institución y el Parlamento de Navarra firmado el 30 de noviembre de 2011, desarrollando así el acuerdo parlamentario del 12 de febrero de 2009 para la creación de un **Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra**.

Consulte el Fondo Documental de la Memoria Histórica de Navarra

Filtros de búsqueda

Nombre Primer apellido Segundo apellido

Sexo Mujer Hombre Ambos

Nacimiento **Vecindad**

Estado Estado

Provincia Provincia

Municipio Municipio

Colectivo de militancia

Colectivo de militancia

Hechos represivos

Categoría

Subcategoría

Motivo Centro reclusión

[Aplicar](#)

Contacto: fondo.memoriahistorica@unavarra.es
 Departamento de Ciencias Humanas y de la Educación
 Universidad Pública de Navarra - Campus de Arrosadia

6. irudia.- NMHDFren orrialde nagusiaren bista.

Consulte el Fondo Documental de la Memoria Histórica de Navarra

Filtros de búsqueda

Antonio | Primer apellido | Segundo apellido

Sexo Mujer Hombre Ambos

Nacimiento **Vecindad**

Estado | Estado

Provincia | Provincia

Municipio | Municipio

Colectivo de militancia

Colectivo de militancia

Hechos represivos

Categoría

Subcategoría

Motivo | Centro reclusión

Aplicar

Exportar PDF

7. irudia.- NMHDFren orrialde nagusiko bilatzailearen erabileraren adibidea.

Mostrar 20 registros

Buscar:

Nombre	Primer apellido	Segundo apellido	Fecha nacimiento
Antonio	ÁLVAREZ	GARCÍA	12/1/1912
Antonio [Antón]	ALZUETA	ERDOZAIN	17/1/1886
Antonio	ARIAS	FIDALGO	19/2/1914
Antonio	ARJONA	LÓPEZ	1916
José Antonio	ARLEGUI	ARRAIZA	14/6/1898
Antonio	AYUSO	LÓPEZ	
Antonio	AZAROLA	GRESILLÓN	1874
Antonio	AZCÁRATE	IZURDIAGA	17/1/1898
Antonio	BAÑOS [PAÑOS]	CUELLIGA	
Antonio [Ángel]	BARRADO	PEJENAUTE	19/12/1912
Antonio	BELTRAN	DE LUIS	13/7/1919
Antonio	BERMEJO	GARCÍA	7/11/1886
Antonio	BERNAL	GÓMEZ	1875
Antonio	BUBEA	IBARROLA	
Antonio	CABESTRE [ABESTRE]	LITAGO	4/4/1905
Antonio	CABRERO	SANTAMARÍA	15/12/1903
Juan Antonio	CAMACHO	FERNÁNDEZ	13/4/1908
Antonio	CASAS	MATEO [MATEOS]	1918
Antonio	CASTRO	ANSORENA	7/11/1893
Antonio	CHASCOPINO [CHASCOBINO] [CHACOFINO]	MANZANERO [MANZANARO]	

Mostrando registros del 1 al 20 de un total de 638 registros

Anterior 1 2 3 4 5 ... 32 Siguiente

8. irudia.- Bilaketa batean baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerrenda



Listado personas represaliadas recogidas en la base de datos del FDMHN

Informe generado el 29-03-2019 bajo la licencia de Creative Commons

Fuente: Fondo Documental de la Memoria Histórica de Navarra www.memoria-historica.unavarra.es.
Información y fuentes individualizadas en la ficha de cada una de las personas represaliadas.

Listado generado a partir del criterio de búsqueda: Todos las personas con nombre que contenga 'Antonio', cualquier primer apellido, cualquier segundo apellido. Nacidos en cualquier municipio de cualquier provincia. Vecinos de cualquier municipio de cualquier provincia. Que ha sufrido cualquier tipo de represión. Afiliado a cualquier colectivo de militancia ha podido estar en cualquier centro de reclusión debido a cualquier motivo.

Primer apellido Segundo apellido, Nombre
 ABAD OLEA, Antonio
 ABOY TORRES, Antonio
 ABRIL MARTÍNEZ, Antonio
 ACUÑA CASIDE, Antonio
 ADOT AGUIRRE, Antonio
 ADRIÁN [DESCONOCIDO/EZEZAGUNA], Antonio
 AGUDO LOZANO, Antonio
 AGUINCHONA [ARGUINCHONA] CENDOQUI, Antonio
 AGUIRRE LUZARRAGA, Antonio
 AJA ELIZALDE, Antonio
 ALAYETO LÓPEZ, Antonio
 ALBA LOYARTE, Antonio
 ALBENIZ IBANDA, Antonio
 ALEGRÍA SÁNCHEZ, Antonio
 ALFARO ALCÁNTARA, Pedro Antonio
 ALFARO [DESCONOCIDO/EZEZAGUNA], Antonio
 ALFONSO ALFONSO, Antonio
 ALGUACIL DE LA PAZ, Antonio
 ALMENDRO CORNADO, Antonio
 ALONSO CERRAZ, Antonio

9. irudia.- PDF baten adibidea, bilaketa bat eginez sortua.

Inicio Proyecto Noticias Informes / Documentos Castellano Euskera

Fondo Documental de la Memoria Histórica de Navarra
 Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Dokumentazio Fundoa

Inicio / Ficha

Antonio ÁLVAREZ GARCÍA

Imprimir informe

Datos personales

Sexo: Hombre
 Fecha de nacimiento: 12/1/1912
 Estado civil: Soltero/Ezkon gabea
 Profesión: Obrero/Langile

	Nacimiento	Vecindad
Municipio	Sangüesa/Zangoza	Sangüesa/Zangoza
Comarca	Navarra Media Oriental	Navarra Media Oriental
Provincia	Navarra/Nafarroa	Navarra/Nafarroa
Estado	España	España

Desconocidos: Padre: Madre: Hijos: Colectivo de militancia: Obs:
 Militancia: Cargo político/institucional:

Informe de muerte

Fecha: 2/10/1936
 Localización: Zaragoza (Tercio de Sanjurjo)

	Lugar muerte
Municipio	
Provincia	Zaragoza
Estado	España

Desconocidos: Hora; Causa; Informe; Enterramiento:

Hechos represivos

Categoría: ASESINATO / ERALKETA
 Asesinato "extrajudicial" / "judizioz kanpo" eralketa
 Fecha: 2/10/1936
 Motivos: Estado de guerra

Referencias

Fuentes primarias
 Alzafaylla Kultur Taldea (2008)

Fuentes secundarias
 Alzafaylla Kultur Taldea (2008)

Contacto: fondo.memoriahistorica@unavarra.es
 Departamento de Ciencias Humanas y de la Educación

10. irudia.- Errepresaliatu baten fitxa baten adibidea.



Información relacionada con los hechos represivos sufridos por **Antonio ÁLVAREZ GARCÍA** recogidos en la base de datos del FDMHN. Informe generado el 29-03-2019

Datos personales

Sexo: Hombre
 Fecha de nacimiento: 12/1/1912
 Estado civil: Soltero/Ezkon gabea
 Profesión: Obrero/Langile

	Nacimiento	Vecindad	Muerte
Municipio	Sangüesa/Zangoza	Sangüesa/Zangoza	
Comarca	Navarra Media Oriental	Navarra Media Oriental	
Provincia	Navarra/Nafarroa	Navarra/Nafarroa	Zaragoza
Estado	España	España	España

Informe de muerte

Fecha: 2/10/1936
 Localización: Zaragoza (Tercio de Sanjurjo)

Página 1

11. irudia.- Errepresaliatutako pertsona baten fitxa batetik abiatuta egindako PDF dokumentu baten lehenbiziko orria

c. Informazio probatua kudeatzeko tresna

Datu-basean informazioa erantsi, dagoena aldatu edota ezabatzeko erabiltzen den web-orri pribatuan NMHDFko langile baimenduak baizik ezin dira sartu. Kudeaketa orri honen ikuspegi/bista nagusiak tresnaren erabilerari buruzko informazio estatistikoa jasotzen du. Ezkerreko aldean zutabe bat dago, eta hortik abiatuta datu-baseko taula desberdinetara iristeko aukera ematen duten bistetara ailegatzeko bidea dago.

Erremintaren funtzionamendua irudikatzeko adibide gisa, “Errepresaliatuak” taulari datu berriak gehitzeko prozesua deskribatuko dugu. Lehenik eta behin, taulen zutabeko “errepresaliatuak” erlaitzean klik egin behar da, eta horrek dagokion taulako informazioarekin kargatuko du bista (12. irudia). Ondotik, orriaren goiko aldean dagoen “gehitu” botoian sakatuko dugu, eta datuak sartzeko inprimaki batek ordezkaturiko du bista. (13. irudia). Behin inprimakia beteta (gutxienez

izartxoarekin adierazitako eremu guztiak bete behar dira, adibidez, izena), inprimakiaren behealdeko "Gorde eta gehitu beste bat" edo "Gorde" botoian klik eginen dugu. Erregistro berri bat gehituko du datu-baseak, eta, horrela, uneko inprimakiaren bista edo pertsonen zerrenda duen bista kargatuko ditu, sakatutako botoian adierazita dagoenaren arabera. Gainerako tauletako txertaketek modu bertsuan funtzionatzen dute.

Bista honek, aldi berean, aukera ematen du datu-baseko erregistroak aldatzeko eta ezabatzeko. Erregistro bakoitzean ageri diren botoi berde eta horiak erabil daitezke horretarako. Posible da beste botoi batzuk ere erabilgarri izatea laguntzen dioten taula zehatzaren arabera. "Ezabatuta" botoian sakatuz gero, baieztapen erlaitz bat agertuko da, eta, ekintza baieztatzen bada, erregistroa ezabatuko du datu-basetik zein nabigatzailearen bistatik. "Aldatu" botoiak aurretik deskribatu dugun inprimakia bezalako bat kargatuko du txertaketa bat egin ahal izateko, baina salbuespena izanen da: sartutako datuak inprimakiko lauki guztietan agertuko dira.

Azkenik, bada kudeaketa tresnak eskaintzen duen beste funtzionalitate bat; diseinuarekin dago lotua, "Datu-basea" atalean deskribatu denarekin. "Errepresaliatuak", "Gertakari errepresiboak", "Kartzelaldi errepresiboak" eta "Kartzeletako mugimenduak" taulek lotura dute beren artean. Zehazki, batetik abiatuta, posible da horrekin lotura duten beste erregistroetara ailegatzea. Adibidez, "errepresaliatuak" taulatik abiatuta, errepresaliatutako pertsona jakin batekin lotutako gertakari errepresiboari buruzko erregistrora ailegatzen ahal gara, erregistro bakoitzaren eskuineko aldean dagoen "gertakari errepresiboak" botoia sakatuta. Horrek 14. irudian ageri dena bezalako bista bat kargatuko du.

The screenshot shows a web application interface for 'Hechos represivos'. The interface includes a sidebar with navigation options, a header with user information and actions, and a main table with columns for identification, category, location, and date. The table is currently empty, and the footer indicates 'Total de registros: 1 a 1 de 1'.

Identificación represaliado	Categoría represión	Subcategoría represión	Municipio donde ocurrió	Concejo donde ocurrió	Estado civil	Profesión	Motivo	Colectivo de militancia	Día	Mes.	Año.	Empresa.	Municipio vecino	Provincia vecino	Fue prin

14. irudia.- Pertsona jakin batek jasandako errepresio ekintzen pantaila

Ondorio modura

Testu osoan ikusi ahal izan denez, errepresio frankistaren modalitateei buruzko datu-baseak eraikitzeke orduan hainbat dira bidean aurkitutako zailtasunak. Gainera, prozesua zuzenean baldintzatuta dago, bai informazio-iturrien aniztasunagatik, bai aztertu beharreko lurraldeko errepresioaren baldintza zehatzengatik. Alde horregatik, hemen aurreratu dugun proposamena Nafarroako errealitate historiko eta historiografikoaren parte bat da, eta, ziurrenik, beste probintzia edo autonomia erkidego batzuei aplikatuz gero, aldaketak egin beharko lirateke.

Hala ere, uste dugu komeni dela, eta gure asmoa da, lan-ibilbide partekatuan eta konparaziozko agertokietan sakontzea, Datu-base hau bera horren emaitza da, sarreran adierazi den bezala, Galiziako unibertsitateen Nomes e Voces proiektuaren datu-basetik abiatutako berrantolaketaren fruitua baita. Ildo beretik, espero dugu Nafarroan

orain egindako lana baliagarria izanen dela elkarrizketarako, eztabaidarako eta lankidetzarako espazioak sortzen jarraitzeko, frankismoaren errepresioari buruzko azterlan kuantitatiboetan eta, ondorioz, kualitatiboetan ere koordinazio handiagoa lortzen lagunduko digutenak.

Orain aurkezten ari garen datu-baseak, bide horretan, hiru norabidetan dakar aurrerapena: lehenik eta behin, errepresaliatuen zigor eta zehapen motei buruzko informazio iturria da gizartearentzat eta, bereziki, frankismoaren biktimengandik hurbileko pertsonentzat; bigarrenik, aurkeztu dugun proiektuak aurrerapena dakar tresna kuantitatiboen garapenean, errepresioari buruzko datuak, hainbat aldagai eta modalitate errepresibo integratuz; eta, hirugarrenik, kategoria eta azpikategoria errepresiboak bereizteko aberastasun horren ondorioz, errepresioaren berrikuspen pluralagoa eta poliedrikoagoa egiten laguntzen du, fusilatuen eta espetxeen inguruko azterketa klasikoenak gainditu eta lehen begiratuan hain agerikoak ez diren baina errepresio-politiken inpaktua modu globalean ulertzeko beharrezkoak diren alderdiak integratu ahal izateko, eta ulertzeko, bestalde, zer mekanismori esker egon iraun zuen zutik erregimenak lau hamarkadan.

Bibliografia

- AGUILAR, Paloma (2008). *Políticas de la memoria y memorias de la política*. Madril, Alianza Editorial.
- AGUILAR, Paloma eta PAYNE, Leigh, (2017). *El resurgir del pasado en España. Fosas de víctimas y confesiones de verdugos*. Madril, Taurus.
- SIERRA, Félix eta ALFORJA, Iñaki (2006). *Fuerte San Cristóbal 1938: La gran fuga de las cárceles franquistas*, Iruña, Pamiela.
- ALTAFFAYLLA KULTUR TALDEA (2018) [1986]. *Navarra 1936: De la esperanza al terror*, Tafalla, Altaffaylla Kultur Taldea.
- ÁLVARO DUEÑAS, Manuel (2006). <<Por ministerio de la ley y voluntad del Caudillo>>: *la jurisdicción especial de responsabilidades políticas*. Madril, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- BARBER, Soledad eta JIMENO, Roldán (ed.) (2017). *Niños desaparecidos, mujeres silenciadas*, Valentzia, Tirant lo Blanch.
- CHUECA, Iosu (2006). *Gurs. El campo vasco*, Tafalla, Txalaparta.
- CUESTA, Josefina (zuz.) (2009). *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1939-1975)*. Madril. Largo Caballero fundazioa.
- DEL ARCO, Miguel Ángel eta HERNÁNDEZ, Claudio (2016). "Los componentes sociales de la represión franquista: orígenes, duración, espacios y actores", *Historia Actual Online*, 41.
- EGIDO, Ángeles (koord.), (2018). *Mujer, franquismo y represión. Una deuda histórica*. Madril, Sanz y Torres.
- EGIDO, Ángeles eta EIROA, Matilde (2018). "El fenómeno represivo español y el contexto europeo: del relato historiográfico a la narrativa digital", en GÓMEZ BRAVO, G. y MARTÍN NÁJERA, A. *A vida o muerte. Persecución de los republicanos españoles*. Madril, Fondo de Cultura Económica.
- ESPINOSA, Francisco (2015). *Lucha de historias, lucha de memorias: España 2002-2015*. Aconcagua, Sevilla.
- ESPINOSA, Francisco, koord., (2010). *Violencia roja y azul: España, 1936-1950*. Bartzelona, Crítica.
- ETXEBERRIA, Francisco, BERISTAIN, Carlos eta PEGO, Laura (zuz.) (2017). *Informe final. Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. Donostia, Eusko Jaurlaritza, Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia.
- EZKIETA, Fermín, (2018). *Los fugados de Ezkaba 1938*, Iruña, Pamiela.

- GALTUNG, Johan (1969). "Violence, peace and peace research", *Journal of Peace Research*, 6.
- GARCÍA FUNES, Juan Carlos (2017). *Espacios de castigo y trabajo forzado del sistema concentracionario franquista*. Doktoretza-tesia. Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GARCÍA SANZ MARCOTEGUI, Ángel (koord.) (2001). *El exilio republicano navarro de 1939*, Iruña, Nafarroako Gobernua.
- GARCÍA SANZ MARCOTEGUI, Ángel (koord.) (2007). *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (I)*, Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GARCÍA SANZ MARCOTEGUI, Ángel (koord.) (2012). *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (II)*, Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GARCÍA SANZ MARCOTEGUI, Ángel (koord.) (2015). *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (III)*, Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GARMENDIA AMUTXASTEGI, Gotzon (2009). *Comisión de la Verdad de Euskal Herria; Verdad, Justicia y reparación, incluidas las Garantías de no repetición*. Usurbil, Gertu.
- GIL ANDRÉS, Carlos (2009). "La zona gris de la España azul: la violencia de los sublevados en la Guerra Civil", *Ayer*, 76.
- GOMEZ BRAVO, Gutmaro (2017). *Geografía humana de la represión franquista. Del Golpe a la Guerra de ocupación (1936 – 1941)*. Madrid, Cátedra.
- GOMEZ BRAVO, Gutmaro eta LORENZO RUBIO, César (2013). "Redención y represión en las cárceles de Franco", OLIVER, Pedro (ed.) *El siglo de los castigos. Prisión y formas carcelarias en la España del siglo XX*. Bartzelona, Anthropos.
- GOMEZ BRAVO, Gutmaro (2017). *Geografía humana de la represión franquista. Del Golpe a la Guerra de ocupación (1936 – 1941)*. Madrid, Cátedra.
- GONZÁLEZ CALLEJA, Eduardo (2012). "La represión estatal como proceso de represión política", *Hispania Nova*, 10.
- IRIARTE ARESO, José Vicente (1995). *Movimiento obrero en Navarra (1968-1977): organización y conflictividad*, Iruña, Nafarroako Gobernua.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán (2018). *Amnistías, perdones y justicia transicional. El pacto de silencio español*. Iruña, Pamiela.
- JOLY, Maud (2008). "Las violencias sexuadas de la guerra civil española. Nuevo paradigma para una lectura cultural del conflicto". *Historia Social*, 61

- LANGA-NUÑO, Concha (2014). “<<De Sevilla la roja a la tierra de María Santísima>>: la <<recatolización>> de Sevilla”, en RUIZ SÁNCHEZ, José Leonardo (coord.) *La Iglesia en Andalucía durante la guerra civil y el primer franquismo*, Sevilla, Sevillako Unibertsitateko Argitalpenen Idazkaritza.
- LAYANA, César (2012). “Represión económica en Navarra, 1936-1945”, Segura, Antoni, Mayayo, Andreu y Abelló, Teresa (ed.), *La dictadura franquista. La institucionalización d'un règim*, Bartzelona, Publicacions i Edicions de la Universitat de Barcelona. 2014,
- LOUZAU, Joseba eta MONTERO, Feliciano (zuz.) (2015). *La restauración social católica en el primer franquismo, 1939-1953*. Alcalá de Henares, Universidad de Alcalá, Argitalpenen Zerbitzua
- MAJUELO, Emilio (1989). *Luchas de clases en Navarra 1931-1936*, Iruña, Nafarroako Gobernu.
- MAJUELO, Emilio, MENDIOLA, Fernando, GARMENDIA, Gotzon, PEREZ IBARROLA, Nerea eta GARCÍA FUNES (2016). “Cargos públicos navarros asesinados como consecuencia de la sublevación militar de 1936”, *Memoriapaper(ak)*, 2.
- MAJUELO, Emilio; PIÉROLA, Gemma; PEREZ, Nerea; GARMENDIA, Gotzon; MENDIOLA, Fernando, (2016). *Obras de asistencia técnica para la elaboración de un informe pericial sobre vulneraciones de derechos humanos sufridas por la población residente en Iruñea-Pamplona durante la guerra civil y la etapa franquista*. Iruña, Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtza (NUP).
- MAJUELO, Emilio; PEREZ, Nerea; PIÉROLA, Gemma; GARMENDIA, Gotzon; MENDIOLA, Fernando, (2019). *Informe histórico-pericial elaborado para el Ayuntamiento de Sartaguda. La represión extrajudicial franquista en Sartaguda: un balance cuantitativo*. Iruña, Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtza (NUP).
- MENDIOLA, Ignacio (2014). *Habitar lo inhabitable. La práctica político-punitiva de la tortura*. Bartzelona, Edicions Bellaterra.
- MENDIOLA, Fernando (2013). “Forced Labor, Public Policies, and Business Strategies During Franco’s Dictatorship: An Interim Report”. *Enterprise and Society*, 14, 1
- MENDIOLA, Fernando eta BEAUMONT, Edurne (2006). *Esclavos del franquismo en el Pirineo*. Tafalla, Txalaparta.
- MIGUEZ, Antonio (2014). *La genealogía genocida del franquismo. Violencia, memoria e impunidad*. Madril, Editorial Abada.
- MIKELARENA, Fernando (2016). *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936*, Iruña, Pamiela.

- MOLINERO, Carme eta YSÀS, Pere (1998). *Productores disciplinados y minorías subversivas: clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista*. Madril, Siglo XXI.
- NASH, Mary (2013) (ed.). *Represión, resistencias, memorialas mujeres bajo la dictadura franquista*. Granada, Comares.
- OLIVER OLMO, Pedro (2005). "El concepto de control social en la historia social: estructuración del orden y respuestas al desorden", en *Historia Social*, 51.
- OLIVER OLMO, Pedro (2018). "El concepto de violencia institucional: un enfoque desde la historia social del control y el castigo", en *Gerónimo de Uztariz*, 34.
- PÉREZ IBARROLA, Nerea (2017). *Langileria berri baten eraketa. Iruñerria 1956-1976*. Iruña, Nafarroako Gobernua.
- PIÉROLA, Gemma (2018). *Mujer e ideología en la dictadura franquista. Navarra (1939-1960)*, Iruña, Pamiela.
- POLO MURIEL, Francisco (2015). *La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el Franquismo (1936-1975)*. Doktoretza-tesia, Madril, Universidad Autónoma de Madrid.
- PONS, Anacleto eta EIROA, Matilde (eds.): (2018). *Historia digital: una apuesta para el siglo XXI*. Dossier de la revista *Ayer*, 110.
- PRESTON, Paul (2011). *El holocausto español: Odio y exterminio en la Guerra Civil y después*. Madril, Debate.
- URRIZOLA, Ricardo (2017). *Consejo de guerra. La injusticia militar en Navarra (1936-1940)*, Tafalla, Txalaparta.
- RIVERA, Iñaki (2014) (koord.). *Delitos de los Estados, de los mercados y daño social debates en Criminología crítica y Sociología jurídico-penal*. Bartzelona, Anthropos.
- RODRIGO, Javier (2005). *Cautivos. Campos de concentración en la España franquista, 1936-1947*. Bartzelona, Crítica.
- RODRÍGUEZ TEIJEIRO, Domingo (Teijeiro, 2011). *Las cárceles de Franco*, Madril, La Catarata.
- SÁNCHEZ LEÓN, Pablo eta IZQUIERDO MARTÍN, Jesús (2017). *La guerra que nos han contado y la que no. Memoria e historia de 1936 para el siglo XXI*. Madril, Postmetrópolis Editorial.
- SANZ GAVILLON, Anne-Claire (2017). "Discursos de género y violencia política sexuada en las dictaduras de Franco y Pinochet. Paralelos, transferencias e influencia en la formación del pensamiento y la memoria feminista sobre la violencia de género", Comunicación

presentada al VI Encuentro Internacional Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea, Zaragoza 2017.

- SOBREQUÉS, Jaume (zuz.) (2004). *Les presons de Franco*. Bartzelona, Museu d'Història de Catalunya.
- TORREALDAI, Joan Mari (2018). *Asedio al euskera. Más allá del libro negro*. Donostia, Txertoa argitaletxea.
- TRAVERSO, Enzo (2007). *El pasado, instrucciones de uso. Historia, memoria, política*, Madril, Marcial Pons.
- URRIZOLA, Ricardo (2017). *Consejo de guerra. La injusticia militar en Navarra (1936-1940)*, Tafalla, Txalaparta.
- VARGAS, Francisco Manuel (1994). "Navarros contra el Alzamiento. Memoria documental de una lucha (1936-1939)", *Gerónimo de Uztariz*, 9-10.
- VEGA, Santiago (2011). *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*. Bartzelona, Crítica.
- VILAR, Margarita (2013). "<<The labour market under the iron fist of the state>>: the Franco dictatorship in the mirror of Hitler, Mussolini and Stalin", *European Review of History*, 20, 3.
- VINYES, Ricard, ARMENGOU, Montse eta BELLIS, Ricard (2002). *Los niños perdidos del franquismo*, Bartzelona, RBA.

Online datu-baseak (azkeneko kontsulta publikoa 2019ko martxoaren 25ean)

- Espainiar Estatuko datu-baseak:
 - o Kultura eta Kirol Ministerioaren datu-basea:
 - <http://pares.mcu.es/victimasGCFPortal/buscadorAvanzadoFilter.form>.
 - o Zenbait ekimenen bidez bultzatutako datu-baseak:
 - *Innovation and Human Rights*. Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen datu-base zentralizatua:
 - <https://scwd.ihr.world/es/>
 - *Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica*ren biktimen bilatzailea:
 - <http://memoriahistorica.org.es/listados-de-victimas/>
 - *Público* egunkariaren datu-basea:
 - <https://especiales.publico.es/es/memoria-publica/>
- Frankismoaren biktimen datu-baseak eta informazio pertsonalizatua, autonomia erkidegoetan
 - o Andaluzia
 - Confederación General del Trabajo de Andalucía (CGT.A) / Asociación "Nuestra Memoria"
 - <http://www.todoslosnombres.org>
 - o Gaztela-Mantxa
 - Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
 - <http://www.victimasdela dictadura.es/>
 - Ciudad Realeko Diputazioa
 - <https://www.dipucr.es/index.php/documentos-cultura/mapasmemoria>
 - o Gaztela eta Leon:
 - Asociación Salamanca Memoria y Justicia
 - <http://salamancamemoriayjusticia.org>
 - o Katalunia:
 - Generalitat de Catalunya

- <http://memoria.gencat.cat/ca/que-fem/cost-huma-de-la-guerra-civil/>
- <http://fossesirepressio.cat/es/home>
- Euskal Autonomia Erkidegoa:
 - Eusko Jaurlaritza
 - <http://www.euskadi.eus/personas-desaparecidas/web01-s1lehbak/es/>
 - <http://www.gogora.euskadi.eus/solicitud-adn/aa82-adngogo/es/>
- Valentziako Erkidegoa:
 - Alacanteko Unibertsitatea.
 - <https://memoriarecuperada.ua.es/>
- Galizia:
 - Universidade de Santiago de Compostela.
Unibertsitate arteko proiektua
 - <http://www.nomesevoces.net>
- Nafarroan frankismoak errepresaliatutako pertsonen online datu-base eta zerrendak
 - Erakunde publikoak
 - Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtzaren datu-basea (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
 - <http://memoria-oroimena.unavarra.es/>
 - Nafarroako Hilobien Mapa
 - <http://fosas.navarra.es>
 - Elkarateak eta ikerlariak
 - [Asociación Pueblo de las Viudas \(Sartaguda\)](#)
 - <http://parquedelamemoria.org/?cat=5>
 - Txinparta elkarteak
 - <https://txinpartafuertesancristobal.blogspot.com/p/listado-de-presos-fuerte-san-cristobal.html>
 - Fermín Ezkieta
 - <http://www.losfugadosdeezkaba1938.com/los-olvidados>
 - Juanjo Casanova:
 - <http://carcelpamplona1936.blogspot.com>

- Memoriaren Bideak elkartea
 - <http://esclavitudbajoelfranquismo.memoriarenbideak.eus/es/nombres>

- Altsasu Memoria ekimena
 - <https://altsasumemoria.wordpress.com>